

# EAEkoekonomiaren hiruhilabetekaria

2018ko 2. hiruhilekoa

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

OGASUN ETA EKONOMIA  
SAILA  
*Ekonomia eta Planifikazio Zuzendaritza*

DEPARTAMENTO DE HACIENDA  
Y ECONOMÍA  
*Dirección de Economía y Planificación*



## LABURPENA

2018ko hasieran lortu zuen bizkortze txikiaren ondoren, bigarren hiruhilekoan Araba, Bizkai eta Gipuzkoako ekonomiak %2,9ko urte arteko aldakuntza tasa jaso zuen. Tasa hori aurrekoa baino bi hamarren txikiagoa da eta hasiera ematen dio Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak osatu zuen azken eszenategi makroekonomikoan iragarri zen moteltzeko prozesuari. Hiruhilekoaren hazkundera bat etorri denez Eusko Jaurlaritzaren aurreikuspenarekin, baieztatuta geratu da gidoia espero zen bezala betetzen ari dela. Beraz, dokumentu honetan eskaintzen diren aurreikuspen gaurkotuak, azken atalean zehazten baitira, eta ekainean argitaratu zirenak oso antzekoak dira.

Moteltzearen hasierak ingurune ekonomikoaren bizitasun apalagoan izan du jatorria, esportazioen eta inportazioen zenbakiak aurreko hiruhilekoetan bildutakoak baino nabarmen txikiagoak direlako. Apaltze hori biziagoa izan da esportazioen atalean. Horren ondorioz, kanpo saldoak lehen hiruhilekoan hazkundera ia hamarren oso bat ekartzetik bigarreanean bi hamarren inguru kentzera igaro da. Bi emaitza horien artean dauden bi hamarrenek azaltzen dute ekonomiaren moteltze osoa.

Aitzitik, barne eskariak lehen hiruhilekoaren jarrera hedatzaileari eutsi zion eta 2017 urte osoan ere eskuratu zuen %3,0ko tasa berdindu zuen. Agregatuak egonkortasuna islatu duen arren, beraren bi osagai nagusiek bilakaera kontrajarriak erakutsi zituzten epealdi horretan. Izan ere, azken kontsumoak hainbat hamarrenetan leundu zuen bere hazkunde erritmoa eta kapital eraketa gordinak ordurako oso bizia zen erritmoa bizkortu zuen %4,8ko urte arteko balioa eskuratu arte. Nabarmentzekoa da berriro ekipamendurako ondasunetan eginiko inbertsioaren sendotasuna (%6,1), baina gainontzeko inbertsioak ere oso gehikuntza esanguratsua (%4,0) lortu zuen, aurreko emaitzak hobetu zituen.

Aipatu berri den azken kontsumoaren apaltzea bai kontsumo pribatuan bai administrazio publikoen kontsumoan hauteman zen. Lehen kasuan, urte arteko gehikuntza %2,6ra arte gutxitu zen, aurreko balioa baino hiru hamarren beherago eta BPGaren hazkundera baino hiru hamarren gutxiago ere. Horrek urruntzen du familien zorpetzea handitzeko arriskua, interes tasak txikiak diren une batean. Beste aldetik, kontsumo publikoak %2,0ko tasa izan zuen, hori ere BPGaren gehikuntzaren oso azpitik.

Sektoreen analisiak adierazten du hala industriak nola zerbitzuek hazkunde erritmoa leundu zutela bigarren hiruhilekoan, baina bi kasuetan tasa horiek eta 2017. urtean jasotakoak oso antzekoak dira. Zehazkiago adierazita, industria lehen hiruhilekoko %3,7tik bigarrenerako

%3,1era igaro zen. Zerbitzuek, berriz, %2,8ra murriztu zuten bere hazkundera, lehen laurdeneko %3,1aren ondoren. Zerbitzuetako hiru blokeak gutxiago hazi ziren bigarren hiruhilekoan. Alde batetik, merkataritza, ostalaritza eta garraioa biltzen dituenak %2,7 handitu zuen bere balio erantsia, hots, lehen hiruhilekoan baino lau hamarren gutxiago. Beste aldetik, administrazio publikoa, hezkuntza, osasuna eta gizarte zerbitzuak barnean hartzen dituenak %2,3 hazi zen, aurreko emaitza baino sei hamarren gutxiago. Gainontzeko zerbitzuek hamarren bakar batean gutxitu zuen beren tasa, %3,0ra arte. Azkenik, eraikuntzaren balio erantsia %4,1 areagotu zen, kasu horretan lehen hiruhilekoaren datua nabarmen gaindituz, nahiz eta zenbaki hori eta 2017ko batez bestekoa oso antzekoak diren.

Lan merkatuak bilakaera ona erakutsi zuen berriro bigarren hiruhilekoan, enpleguaren urte arteko gehikuntza tasa %2,1 izan baitzen, aurreko hiruhilekoetako emaitzetatik desbideratu gabe. Tasa horrek esan nahi du azken hamabi hilekoetan EAEn lanaldi osoko 20.000 lanpostu garbi inguru sortu direla. Horri esker, EAEko ekonomiak gaur egun 956.000 lanpostu dauzka, azken bederatzi urteko kopururik altuena baita. Hala ere, oraindik 45.000 lanpostu gehiago sortu behar dira inoiz eduki duen kopururik gorena berreskuratzeko: 2007ko amaieran eta 2008ko hasieran zeuden milioi bat lanpostu haiek.

Aurreko buletinetan ere adierazi zenez, EAEko ekonomiaren sendotasunak ez du tentsio garrantzitsurik sortu prezioetan. Izan ere, BPGaren deflatoarea %1,0 izan zen bigarren hiruhilekoan, oraingo zikloaren fasea kontutan hartuta oso apala baita. KPI indizea azken lau hilekoetan jarraian %2,0ko helburuaren gainetik egon bada ere, igoera horren arrazoiak puntualak dira eta, printzipioz, iragankorra izango den energiaren garestitzearen ondorioa da. Halaber, azpiko inflazioa, kontsumoko prezioen joera hobeto neurtzen baitu, %1,0 baino ez da hazi hiruhilekoan, BPGaren deflatorearen bezalatsu.


EAEko barne produktu gordinaren bigarren hiruhilekoko hazkundera eta Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzaren aurreikuspena bat etorri direnez, 2018rako eta 2019rako taula makroekonomikoaren gaurkotzeak ia ez du aldakuntzarik ekarri. Zehazkiago, aurtengo hazkunde tasa %2,8 izango da eta datorren urtekoa, berriz, %2,3, hiruhilekoka biziko den moteltzearen perfila bere horretan utzita. Hazkundera barne eskariaren sendotasunean oinarrituko da eta kanpo saldoak hamarren bakar bat kenduko dio urte bakoitzean. Kontsumo pribatuak bere intentsitatea motelduko du urratsez urrats, baina kapital eraketa gordinak hobera egingo du 2018an, datorren urtean apalduko den arren. Sektoreka, taula makroekonomikoak seinatlatzen du zerbitzuak eta industriak aurten eutsi egingo diotela erritmoari eta datorren urtean moteltze arina biziko dutela. Enpleguari dagokionez, 2018an 19.000 lanpostu sortuko dira eta 2019an, berriz, 13.500 gehiago. Langabezia tasa %10,0aren azpian kokatuko da datorren urteko bigarren erdian.

## EKONOMIAREN INGURUNEA


Aurtengo bigarren hiruhilekoan zehar, munduko ekonomiak erritmo onean hedatzen jarraitu zuen. Zehatz-mehatz adierazita, lehen zenbatespenen arabera, hazkunde globala %3,8aren inguruko balioetan kokatu zen lehen seiuhilekoan, 2017ko epealdi berean jaso zuen maila bertsuan. Hala ere, etorkizunari begirako arriskuak areagotu dira balizko merkataritza gudarengatik eta nazioartean finantzaziorako baldintza gogorrarengatik. Azkenik, munduko aurreikuspenak oraindik sendoak badira ere, berriki argitaratu diren datuek moteltze arina iradokitzen dute.

### Munduko ekonomia. BPGa Urte arteko hazkunde tasak


AEB




Europar Batasuna



Txina



Brasil



Iturria: Eurostat eta ELGE.

Oro har, AEBetako hazkundera indartsua izan zen. Txinarena, berriz, nahiko egonkorra. Aitzitik, Europan eta azaleratzen ari diren ekonomia nagusietako batzuetan hazkundera moteldu zen. Nazioarteko merkataritzak joera positiboari eutsi zion eta erritmoa galdu bazuen ere, oraindik ez du protekzionismoaren igoera islatzen.

Azaleratzen ari diren Asiako ekonomia nagusien artean, Indiako BPGa %8,0 areagotu zen, azken bi urteko emaitzarik gorena baita, kontsumo pribatuaren eta inbertsioaren sendotasunak eta esportazioen bultzadak (lehen hiruhilekoaren aldean, salmentak zortzi puntu baino gehiago handitu ziren) bultzatuta. Beste aldetik, Txina nahiko egonkor mantendu zen, beheranzko joera txiki bat erakutsita. Hain zuzen ere, Asiako erraldoiaren hazkunde erritmoa %6,7ra iritsi zen, hots, aurreko bederatzi hilekoetan lortutako hedaldia baino hamarren bat gutxiago. Kredituaren garestitzeak inbertsioa eta industria ekoizpena kaltetu zituen. Horrek eta esportazioen bultzada txikiagoak moteltze leun hori azaltzen dute.

Amerika Latinoan, bertako ekonomia nagusiek hazkundera gutxitu zuten. Beraien artean, Argentinaren eta Brasilen ekonomien ahultasuna nabarmendu behar da, ziurgabetasun politikoak eta finantza alorreko hegakortasunak kaltetuta. Zehazkiago adierazita, Brasileko hazkundera berriro apaldu zen aurtengo bigarren hiruhilekoan eta %1,0ra gutxitu. Maiatzeko azken asteetan kamioilariak egin zuten greba nazionalak kalte egin zion zuzenean jarduerari eta enpresariaren zein kontsumitzaileen konfiantza okerragotu zuen. Horrek moteltze garrantzitsua eragin zuen, hala kontsumo pribatua nola inbertsioa. Aurrekoaz gain, truke tasaren balio galera handiagoa izan da Brasilen azaleratzen ari diren beste herrialde batzuetan baino. Hori dela eta, suspertzeko prozesua espero zena baino astiroago gauzatuko dela aurreikusten da. Mexikok, berriz, ezin izan zuen aurreko hiruhilekoaren gehikuntza finkatu eta indarra galdu zuen berriro. Eskura dauden datuen arabera, lehen arloak behera egin zuen, bero bolada gogorrek kaltetuta, eta industriak bere hazkundera galgatu zuen. Aurrekoaren ondorioz, Mexikoko BPGak zazpi hamarren galdu zituen eta %1,6an kokatu zen. Ekialdeko Europako ekonomiek hazkunde erritmoa moteldu zuten, Euroguneko apaltzearen ondorioz. Turkiari dagokionez, ekonomia jardueraren erritmo txikiagoaren arrazoia herrialde horretan berriki bizi den hegakortasun finantzarioaren eraginari lotuta dago.

Oro har, ELGE osatzen duten herrialdeak %2,5 hazi ziren eta, hazkunde hori aurreko hiruhilekoan jasotakoa baino hamarren bakar bat txikiagoa den arren, baieztatuta geratu da ekonomia aurreratu nagusien artean gehikuntzak erritmo ezberdinak erakusten dituela. Izan ere, AEBetan ekonomia jarduerak sendo egin zuen gora, baina Eurogunea eta Japonia aurreikusitakoa baino gutxiago hazi ziren. Zerga pizgarriak eta enplegu betean dagoen lan merkatua dira AEBetan jaso den hazkunde garrantzitsuaren zutabe nagusiak. Bizitasunaren zati handiena barne eskaririk iritsi zitzaion, batez ere kontsumo pribatutik. Soldatak gorantz doaz eta inbertsioa oraindik indartsu dago, aurreko hiruhilekoaren aldean erritmoa galdu bazuen ere.

Orobat, esportazioen portaera sendoa azpimarratu behar da, Txinara bidaltzen den soia aurreratu zelako, nekazaritzako produktuei ezarri behar zitzairen muga zergak indarrean sartu baino lehen. Halaber, epealdi horretan inportazioak gutxitu ziren. Aurreko guztiaren ondorioz, ekonomia estatubatuarra %2,9 areagotu zen 2018ko bigarren hiruhilekoan, azken hiru urteko emaitzarik onena baita.

Japonian, familien gastuak oraindik ez du finkatu bere papera bultzagile gisa eta osagai garrantzitsua da *Abenomics* estrategian, alegia, Japonia bere deflaziotik ateratzeko enpresen mozkinekin, soldaten gehikuntzekin eta prezioen igoerekin eratu nahi duten gurrpil oparoa. Kontsumo pribatuak hamarren bakar bat ekarri zion BPGaren hazkunderari eta inbertsioak zein esportazioek, bederatzina hamarren ekarriz, eman zioten bultzada ekonomiari. Lan merkatuaren bilakaera ona izan zen berriro, baina langabezia tasa zertxobait goratu zen uztailean, %2,5 arte, maiatzean %2,2ra jaitsi eta gero. Aitzitik, lana bilatzen ari diren 100 pertsona bakoitzeko eskaintzen den lanpostuen kopurua 162ra igo da, gutxienez 44 urteko epean inoiz izan den mailarik gorena baita. Zenbaki horiek agerian uzten dute munduko hirugarren ekonomian lan esku falta areagotu dela. Joera hori are gehiago larriagotuko da etorkizunean, herrialde hartako zahartze demografikoaren ondorioz. Azkenik, prezioek eremu positiboari eutsi zioten. Uztailean, KPIa %0,9 hazi zen.

Europar Batasunean, ekonomia jarduerak erritmo neurritsuan hazten jarraitu zuen aurtengo bigarren hiruhilekoan, 2017an hazkunde sendoa bizi eta gero. Gehikuntza txikiago horren atzean, bizitasun galera orokorra dago, zeren eta barne eskariaren zein kanpo eskariaren agregatu guztiek, gastu publikoak izan ezik, ekarpen txikiagoa egin baitzioten BPGari. Hala eta guztiz ere, bai Europar Batasuneko hazkundera bai Eurogunekoa (%2,1) garrantzitsua izan zen oraindik eta argitaratu diren azken adierazleek iradokitzen dute hirugarren hiruhilekoko hazkundera antzeko mailan kokatuko dela. Beraz, oraingoz, baztertuta geratzen da ekonomia bilakaeraren irakurketa alarmista bat.

Zehazkiago adierazita, Alemaniak aurreko hiruhilekoan eskuratutako hazkunderaren antzekoa lortu zuen. Hain zuzen ere, herrialde germaniarrak ia ez zuen tonurik galdu eta %1,9 hazi zen, aurrekoa baino hamarren bakar bat gutxiago. Kontsumo publikoaren gorakadak eta inbertsioaren bultzadak kontsumo pribatuaren bizitasun txikiagoa konpentsatu zuten. Frantziak, berriz, moteltze garbiagoa pairatu zuen, aurreko %2,1etik %17ra igarota. Inbertsioa egonkor hazi zen, baina familien kontsumoaren beste galera batek eta esportazioen bultzada txikiagoak hazkunde apalago hori azaltzen dute. Italia bien artean kokatu zen, beraren hazkunde tasa bi hamarrenetan gutxituz. Inbertsioa sendo hazi zen eta kontsumoak eutsi egin zion, baina oraindik ez da suspertu eta tasa apaletan jarraitzen du. Dena dela, inportazioen gorakadak lastatu zuen hazkunderaren hazkundera.



Espainiak ere nabaritu zuen Europako ekonomia gehienetan (haietako 16tan, gutxienez) hauteman zen moteltzea, baina erritmo bizian hazten jarraitu zuen. Inflazioaren gorakadatik eratorzen den erosteko ahalmenaren galerak –maiatzetik abuztura KPI indizea %2,0aren gainera kokatu zen- aurrezteko ahalmena murriztu zuen eta familien kontsumoari kalte egin zion. Esportazioek ere nabarmen murriztu zuten beren erritmoa, Europar Batasuneko jardura txikiagoak baldintzatuta, hura baita merkataritzarako bazkide behinena eta hara bidaltzen baita salmenta guztien %60. Aurreko guztiaren ondorioz, ekonomia espainiarra %2,5 hazi zen. Joera horretatik aldentuta geratu ziren Portugal eta Erresuma Batua. Herrialde lusitaniarrak hazkundeari eutsi zion, barne eskariaren bilakaera onari esker, lan merkatuaren bizitasunak berau gorarazi baitzuen (uztailean, langabezia tasa %6,8an kokatu zen). Erresuma Batuak, berriz, bizitasuna zertxobait berreskuratu zuen, sei hilekoz jarraian moteltzen aritu eta gero. Hain zuzen ere, bertako ekonomia zertxobait suspertu zen bigarren hiruhilekoan (%1,2tik %1,3ra) eguraldi onak txikizkako merkataritzan eta eraikuntzan izan zuen eragin positiboagatik.

#### ESPAINIAKO EKONOMIA. TAULA MAKROEKONOMIKOA

Urte arteko aldakuntza tasa

	2017	2017				2018	
		I	II	III	IV	I	II
Azken kontsumoko gastua	2,4	2,0	2,3	2,4	2,7	2,9	2,2
- Familien gastua	2,5	2,3	2,5	2,6	2,7	3,1	2,3
- Administrazioaren gastua	1,9	1,2	1,7	2,0	2,6	2,4	1,9
Kapital finkoaren eraketa gordina	5,4	4,6	3,9	6,7	6,2	4,3	7,8
Nazio eskaria (*)	2,9	2,5	2,6	3,2	3,3	3,1	3,3
Esportazioak	5,2	6,1	5,4	5,4	4,2	3,4	2,3
Inportazioak	5,6	5,5	4,4	7,0	5,4	4,7	5,2
<b>BPG (m.p.)</b>	<b>3,0</b>	<b>2,9</b>	<b>3,1</b>	<b>2,9</b>	<b>3,1</b>	<b>2,8</b>	<b>2,5</b>
Nekazaritza eta arrantza	-0,9	-0,7	-2,5	-0,8	0,4	2,2	3,2
Industria	4,4	4,6	4,2	4,0	4,9	2,6	2,5
Eraikuntza	6,2	5,3	6,5	6,0	6,8	7,4	7,1
Zerbitzuak	2,5	2,3	2,6	2,5	2,5	2,5	2,3
Produktuen gaineko zerga garbiak	3,3	3,4	4,2	3,1	2,7	2,9	1,0

Oinarri urtea: 2010. (\*) BPGaren hazkundeari eginiko ekarpena.  
Iturria: Espainiako Estatistika Erakundea (INE).

Lan merkatuari dagokionez, Europar Batasuneko langabezia tasa %6,8an geratu zen abuztuan, 2008ko apiriletik jaso den txikiena baita. Horrek esan nahi du oraindik 16.657.000 lagun daudela oraindik lanik gabe. Espainiak izan zuen berriro, Greziaren ondoren, tasa altuena, abuztuan %15,2 batekin.



## EAE-KO EKONOMIA

### Ekoizpena eta enplegua

2018ko hasieran izan zuen gorakadaren ondoren, bigarren hiruhilekoan EAEko ekonomiak moteltzeko prozesu arin bati hasiera eman zion eta %3,1 haztetik %2,9ra igaro zen. Hazkunde erritmo txikiago hori aurreikusita zegoen aurreko txostenean aurkeztu zen taula makroekonomikoan. Beraz, ekonomiaren bilakaerak aurreikusitako gidoiari jarraitu dio. Lortutako emaitza esanguratsua da, ez bakarrik bere tamainagatik, 2017an eskuratu zuen batez bestekoa berdindu baitu, baita inguruneko herrialdeekiko alderaketagatik ere, kasu askotan bilakaera ez baita horren positiboa. Izan ere, ekonomia espainiarrak hiru hamarrenetan gutxitu zuen aldakuntza tasa, %2,7ra arte, eta Euroguneak %2,1ean utzi zuen gehikuntza. Kasu horretan, hirugarren hiruhilekoz jarraian gutxitu du urte arteko hazkundea.

#### ESKAINTZAREN ALDAGAIK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2016	2017	2017			2018	
			II	III	IV	I	II
<b>BPG erreala</b>	<b>3,3</b>	<b>2,9</b>	<b>2,9</b>	<b>3,0</b>	<b>3,0</b>	<b>3,1</b>	<b>2,9</b>
Nekazaritza eta arrantza	1,0	6,8	9,6	9,6	-2,7	-3,0	0,8
Industria eta energia	4,2	3,1	2,9	3,0	3,5	3,7	3,1
- Manufakturen industria	4,3	3,2	3,0	2,9	3,4	3,9	3,1
Eraikuntza	0,2	3,8	3,9	4,7	4,0	2,7	4,1
Zerbitzuak	2,8	2,7	2,8	2,8	2,7	3,1	2,8
- Merkataritza, ostalaritza eta garraioa	3,6	4,0	4,0	4,1	3,6	3,1	2,7
- AA. PP., hezkuntza eta osasuna	2,4	2,2	2,4	2,2	2,4	2,9	2,3
- Gainontzeko zerbitzuak	2,5	2,2	2,3	2,2	2,3	3,1	3,0
Balio erantsi gordina	3,0	2,9	2,9	3,0	2,9	3,1	2,9
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	6,8	2,8	2,5	2,7	3,3	3,1	2,8

Iturria: Eustat.

Ekonomiaren analisia sektoreka egiten denean, agerian geratzen da hazkundearen moteltzea industrian eta zerbitzuetan gauzatu dela. Hala eta guztiz ere, bi kasuetan lehen hiruhilekoaren datua aurrekoak baino askoz ere altuagoa izan zen. Beraz, bigarren hiruhilekoarena, bizitasunaren galera baino gehiago, 2017ko balioetara itzultzea izan da. Izan ere, industriaren balio erantsia %3,1 handitu zen bigarren hiruhilekoan, 2017ko batez bestekoa berdinduz, nahiz

eta lehen hiruhilekoko emaitza bikaina (%3,7) baino sei hamarren txikiagoa den. Manufakturen bilakaera (%3,1) eta industriaren gainontzeko jarduerena oso antzekoa izan zen bigarren hiruhilekoan.

Industria arloaren koiunturako adierazleek iradokitzen dute sektoreak agian bizitasun pixka bat galdu duela, baina hazkundea oraindik nabarmena den testuinguru batean. Izan ere, industria ondasunen ekoizpenak bi hiruhileko kateatu ditu gehikuntza tasak gutxitzen, %2,2an kokatu arte. Estatistika horren arabera, emaitza onenak ekipamendurako ondasunek eskuratzen dituzte, inbertsioari lotuta baitaude, %6,7ko igoera jaso zutelako, aurreko balioen oso gainetik. Tamaina txikiagokoa da, baina positiboa hau ere, bitarteko ondasunen ekoizpenaren urte arteko tasa (%1,1). Aitzitik, bilakaera negatiboa da energiaren ekoizpenean (%-2,9), nahiz eta jarduera horrek gorabehera handiak izaten dituen une jakin batzuetan, eta baita kontsumoko ondasunetan ere (%-1,3). Azken talde horren barnean, desberdindu behar dira kontsumo iraunkorreko ondasunen zailtasunak (%-12,0) eta kontsumo iragankorreko ondasunen susperraldia (%2,9), hainbat hiruhilekotan tasa negatiboak edo oso txikiak jaso ondoren.

## JARDUERA ADIERAZLEAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2016	2017	2017			2018	
			II	III	IV	I	II
<b>Industria</b>							
Industria produkzioaren indizea	2,3	3,0	2,6	3,0	3,7	3,5	2,2
Negozio zifren indizea	0,4	9,4	4,5	10,2	9,5	7,0	11,1
Eskarien sarrera	2,5	6,5	7,2	11,2	11,6	7,7	5,4
Gizarte Segurantzako afiliazioa	1,7	1,8	1,8	1,6	1,7	1,9	1,9
<b>Eraikuntza</b>							
Eraikuntzaren koiuntura indizea	2,1	5,9	6,2	2,0	6,4	6,7	13,1
Etxebizitza berrietarako bisatuak	-13,4	26,7	4,6	103,1	25,9	-5,9	---
Etxebizitzen salerosketak	12,2	11,4	7,5	19,0	10,6	9,4	5,1
Gizarte Segurantzako afiliazioa	0,0	1,8	1,6	1,6	2,0	2,7	3,4
<b>Zerbitzuak</b>							
Hegazkinen bidezko bidaiariak	7,6	9,2	12,2	5,4	14,2	11,7	9,6
Hoteletan igarotako gaualdiak	8,9	2,6	8,1	-0,9	2,7	9,3	5,7
Negozio zifren indizea	3,7	4,4	4,0	2,9	5,2	7,5	7,8
Zerbitzuen koiuntura indizea	2,9	1,8	1,3	1,8	2,0	2,7	2,2
Gizarte Segurantzako afiliazioa	2,2	2,2	2,4	2,2	2,2	2,4	2,1

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustat, INE, Sustapen Ministerio, Gizarte Segurantzak eta AENAREN datuetan oinarrituta.

Industriaren negozio zifrak oso gehikuntza tasa esanguratsua lortu zuen bigarren hiruhilekoan (%11,1), EAEko industriak bizi duen egoera ona baieztatzen duena. Hala ere, muga zergetan AEBek ezarri nahi duten politikak sortu duen ziurgabetasunak ondorio kaltegarriak izan ditzake jadanik EAEko enpresetan ere. Izan ere, eskari berriei buruzko informazioak adierazten du urtean zehar gutxitzen ari direla eskaera berrien bizitasuna. Norabide horretan, puntu apalena uztailan gertatu zen, hileko horretan aurreko urteko kopuruaren aldean jaitsiera txikia (%-0,3) eskuratu zelako.

Eraikuntzak atzean utzi zuen lehen hiruhilekoan bizi zuen moteltzea eta %4,1 handitu zuen balio erantsia bigarrean. Tasa horrek gaintitzen du 2017an lortutako batez besteko hazkundea eta baieztatzen du sektorearen une gozoa. Eraikuntzaren bizitasunaren oinarrian, eraikinen atalak duela hiruhileko batzuetatik hona bizi duen egoera positiboari aurtan obra zibilaren susperraldia gehitu izana dago. Zehatz-mehatz adierazita, eraikuntzaren koiuntura indizeak seinalatzen du eraikinen atala bigarren hiruhilekoan %13,7 hazi zela eta obra zibilarena, berriz, %8,1.

Zerbitzuetako jarduerak joera hedatzaileari eutsi zioten aurtengo bigarren laurdenean, beren balio erantsia %2,8 handituta. Tasa hori lehen hiruhilekoan jaso zen emaitza bikainaren hiru hamarren beherago dago, baina 2017 osoan eskuratutakoaren antzekoa da. Sektorea osatzen duten hiru talde nagusiek bizi zuten bizitasun galera hori lehen hiruhilekoaren aldean. Alde batetik, merkataritza, ostalaritza eta garraioa biltzen dituen taldeak %2,7ko urte arteko tasa jaso zuen, aurreko datua baino lau hamarren gutxiago. Beste aldetik, administrazio publikoa, hezkuntza, osasuna eta gizarte zerbitzuak batzen dituenak %2,3 handitu zuen balio erantsia, lehen hiruhilekoan baino sei hamarren gutxiago, nahiz eta 2017ko %2,2aren antzekoa izan. Azkenik, gainontzeko zerbitzuek %3,0ko gehikuntza eskuratu zuten, lehen hiruhilekoan baino hamarren bakar bat gutxiago eta 2017ko batez bestekoa baino askoz ere gehiago.


Zerbitzuetako balio erantsiaren bilakaera osatzeko, sektorearen beste informazio osatuagoa erabiliko da, hala nola Eustatek argitaratzen duen zerbitzuen koiuntura indizea. Estatistika horrek adierazten du bai merkataritzak bai gainontzeko jarduerak joera biziari eutsi ziotela bigarren hiruhilekoan. Hain zuzen ere, merkataritzaren blokea %2,2 hazi zen termino errealetan, ibilgailuen salmentaren bultzada handiari esker (%8,3), neurri batean kontzesionarioek isurien araudi berria indarrean sartu baino lehen dauzkaten stockak saldu nahi dutelako. Handizkako merkataritzak ere irudi dinamikoa eskaini du (%2,2), baina txikizkakoak atzerakada txikia (%-0,1) pairatu zuen. Jardueren beste blokean, ostalaritzak (%3,2), garraioak (%2,8) eta jarduera administratiboak eta zerbitzu laguntzaileak (%3,3) izan zituzten emaitza onak azpimarratu behar dira. Aitzitik, informazioa eta komunikazioek (%-1,5) emaitza negatiboak eskuratu zituzten berriro.

Sektorearen bizitasuna negozioen zifran ere hautematen da, %7,8ko gehikuntza nominala lortu zuelako, seriearen aurreko balio guztiak gaintuz. Beste informazio gehigarri batek, turismoaren adarrari lotutakoak, jarduera adar horren bizitasunak bere horretan jarraitzen duela erakusten du. Izan ere, hegazkinez bidaiatu diren lagunen kopurua %9,6 areagotu zen bigarren hiruhilekoan eta zenbaki errekorra lortuko du urteko balantzean, 5,5 milioi bidaiaria baino gehiago lortuta. Orobat, hoteletan igarotako gaualdiak %5,7 hazi ziren epealdi horretan, dagoeneko ezagunak diren uztaileko eta abuztuko datuak antzekoak direlarik.


Ekoizpenaren moteltzeak ia ez zuen inolako eraginik izan enpleguaren bilakaeran, BPGaren aldakuntzen aurrean nolabaiteko atzerapenarekin erantzuten duelako. Bigarren hiruhilekoan, lanaldi osoko lanpostu baliokideen kopurua %2,1 hazi zen urte arteko tasan, aurreko hiruhilekoetan jasotako balioen antzekoa baita. Tasa horrek esan nahi du azken urtebetean EAEko ekonomiak 20.000 enplegu garbi sortu dituela eta dagoeneko 956.000 lanpostu dauzkala guztira. Kopuru hori azken bederatzi urteko altuena da. Halere, oraindik 45.000 enplegu gehiago sortu behar dira krisiaren aurreko zifra berreskuratzeko.

### Enpleguaren bilakaera Urte arteko aldakuntza tasak

Kontu ekonomikoak



Afiliazioa



Iturria: Eustat eta Gizarte Segurantzza

Azken hiruhilekoetan ohikoa izan denez, aldakuntza tasa altuena eraikuntzaren enpleguak lortu zuen (%3,4). Are gehiago, tasa hori da sektoreak 2007tik inoiz eskuratu duen gorena. Horri esker, sektorearen lanpostuen kopurua ia 2.000tan handitu da azken urtebetean. Hala eta

guztiz ere, zerbitzuek sortzen dituzte enplegu gehienak. Zehatz-mehatz adierazita, azken hamabi hilekoetan sortutako lanpostu guztietatik 14.500 sektore horretan gauzatu ziren, urte arteko aldakuntza tasa %2,2 izan zelarik. Azkenik, industriak %1,8 handitu zuen bere enplegua, 3.500 lanpostu garbi sortuta.

Bigarren hiruhilekoan oraindik enplegu sorreran tonu galerarik hautematen ez bazen ere, hirugarrenerako jadanik eskuragarri dagoen informazioak pentsarazten du moteltze hori lan merkatuan ere gauzaten ari dela. Gizarte Segurantzako afiliazioaren datuen arabera, hirugarren hiruhilekoaren batez besteko gehikuntza tasa %1,8 izan zen, bigarren hiruhilekoarena baino hiru hamarren gutxiago. Eraikuntzak bere afiliatuen kopurua oso nabarmen handitu duen arren, beste jarduera batzuetan gehikuntza erritmoa garbi leundu da. Esate baterako, osasun arloko jardueretan afiliazioaren hazkundera bigarren hiruhilekoaren %3,6tik udako hilekoen %3,0ra gutxitu da. Orobat, ostalaritzak ia erdira murriztu du bere tasa, bigarren hiruhilekoaren %2,0tik azken hiru hilekoen %1,3ra. Jarduera administratiboak eta zerbitzu laguntzaileak biltzen dituen adarrak ere enplegua sortzeko gaitasuna gutxika-gutxika galtzen ari da.

Oraindik onak diren enpleguaren datuek lagundu dute langabezia tasaren bilakaeran, bigarren hiruhilekoan %10,1ean kokatu baitzen, hots, Eusko Jaurlaritzak ezarri zuen %10,0aren azpian kokatzeko helburutik oso hurbil. Hala ere, gogoratu behar da langabezia tasa bi aldagaik baldintzatzen dutela: enplegu sorrera eta lan merkatuan parte hartzen dutenen kopurua. Enplegua eskatzen duten pertsonen kopurua igotzen bada, ekonomiak sortzen dituen lanpostuen eskaintza areagotzen delako, helburu hori lortzeko unea atzeratu daiteke.

## **Barne eta kanpo eskaria**

EAEko ekonomiak bigarren hiruhilekoan ezagutu zuen moteltzea kanpo eskariaren aldetik iritsi zen osorik, barne eskariak urte hasierako aldakuntza tasa berdindu zuen bitartean. Hain zuzen ere, barne eskariaren hazkunde tasa %3,0 izan zen aurtengo lehen bi hiruhilekoetan eta zenbaki bera lortu zuen 2017. urteko batez bestekoan. Horrek agerian uzten du magnitude ekonomiko horren egonkortasuna. Beste aldetik, kanpo saldoak ekarpen positiboak eta kenketa txikiak tartekatzen ditu aldika. Horixe da, hain zuzen ere, orain gertatu dena: lehen hiruhilekoan ia hamarren bateko ekarpen positiboa egin ondoren, bigarreanean kanpo saldoak bi hamarren inguru kendu dizkio BPGari. Hiruhileko horretan, esportazioek 1,5 puntu ekarri zioten BPGari, baina inportazioek 1,7 puntu kendu zizkieten.

Oro har, barne eskariak hazkundeari eutsi bazion ere, portaera kontrajarriak hauteman ziren berau osatzen duten bi osagaien artean. Izan ere, azken kontsumoan eginiko gastuak hiru hamarrenetan leundu zuen bere hazkunde erritmoa, %2,5 arte. Aldi berean, kapital eraketa gordinak ordurako bizia zen bilakaera areagotu zuen eta %4,8ko aldakuntza tasa jaso zuen, aurreko balioak nabarmen gaindituz. Inbertsioan oinarritzen den hazkunde eredu hori osasungarriagoa da kontsumoan oinarritutakoa baino, ekonomia eragileen zorpetzea (bereziki familia eta administrazioarena) saihesten duelako eta etorkizuneko hazkundearen oinarriak ezartzen dituelako, produktibitatea hobetuz.

Kontsumo pribatua %2,6 hazi zen bigarren hiruhilekoan, aurreko epealdian baino hiru hamarren gutxiago. Kontsumoa baldintzatzen duten faktore nagusiak ia aldaketarik gabe mantendu ziren arren, gertatu zen moteltze hori. Zehatz-mehatz adierazita, enplegua, soldatak eta familien aberastasuna aurreko epealdiko erritmo bertsuan hazi ziren. Hala eta guztiz ere, kontsumoko prezioen garestitzeak gastatzeko ahalmena murriztu du. Orobat, krisiaren garaian atzeratu ziren eta azken urteetan kontsumo pribatuari bultzada gehigarria eman dioten erosketa haietako asko dagoeneko eginda daude. Horren ondorioz, aldakuntza tasa hurbilago egongo da orain enpleguaren eta soldata errealen gehikuntzara. Beste aldetik, kontsumo pribatua BPGaren azpitik hazten ari da nabarmen, beraz ekonomia eragileen gehiegizko zorpetzerik ez da gauzatzen ari. Urrats gehiago eman behar dira gehiegizko zorpetzeak dakarren desoreka zuzentzeko, etorkizunean biziko den ekonomiaren hazkunde txikiagoko fase bati hobeto aurre egin ahal izateko.

## ESKARIAREN ALDAGAIK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2016	2017	2017			2018	
			II	III	IV	I	II
<b>BPG erreala</b>	<b>3,3</b>	<b>2,9</b>	<b>2,9</b>	<b>3,0</b>	<b>3,0</b>	<b>3,1</b>	<b>2,9</b>
Gastua azken kontsumoan	3,0	2,9	2,8	2,9	2,8	2,8	2,5
- Familien gastua kontsumoan	3,3	3,0	3,0	3,0	2,9	2,9	2,6
- Adminis. gastua kontsumoan	1,8	2,4	2,0	2,5	2,7	2,6	2,0
Kapital eraketa gordina	5,5	3,3	2,5	2,8	3,7	3,7	4,8
- Ekipamendu ondasunak	8,6	3,2	2,0	1,9	3,4	4,8	6,1
- Gainontzeko inbertsioa	3,8	3,4	2,8	3,3	3,9	3,0	4,0
Barne eskaria	3,6	3,0	2,7	2,9	3,0	3,0	3,0
Esportazioak	1,8	4,7	3,6	5,6	6,8	6,7	2,2
Inportazioak	2,2	4,8	3,3	5,4	6,9	6,4	2,4

Iturria: Eustat.

Kapital eraketa gordina berriro izan zen barne eskariaren osagairik dinamikoena, urte arteko aldakuntza tasa %4,8an kokatuta, aurreko balioen oso gainerik. Agregatu horren ezaugarri nagusia da ekipamendurako ondasunetan eginiko inbertsioak erritmo bizia (%6,1) berreskuratu duela eta gainontzeko inbertsioa (%4,0) horri gehitu zaiola, eraikuntzan eginiko inbertsioaren bultzada sendoari esker.

Inbertsioaren jardueri lotuta dauden koiunturako datuek agregatuaren hazkunde gero eta biziagoa baieztatzen dute. Zentzu horretan, oso esanguratsua da aurtengo lehen erdian gauzatu den ekipamendurako ondasunen inportazioaren gehikuntza, batez ere bigarren hiruhilekoan, epealdi horretan %10,6 handitu zirelako, aurreko balioen oso gainerik. Orobat, ondasun mota horren ekoizpena, tokiko enpresak neurri batean bakarrik hornitzen baitu, %6,6 garrantzitsu bat hazi zen. Azkenik, zamaketarako ibilgailuen matrikulazioak (kamioiak, furgonetak eta traktoreak) gehikuntza nabarmena lortu zuen. Eraikuntzaren inbertsioarekin lotzen diren aldagaiek, gorabehera handiak izaten dituzten arren, iradokitzen dute sektoreak gaur eguneko bizitasunari eutsiko diola denbora batez. Izan ere, bizitegi berriak eraikitzekeo bisatuek %30,0aren inguruko gehikuntza metatua dute aurtengo lehen zazpi hilekoetan eta lizitazioa, berriz, %11,9 hazi da. Hala eta guztiz ere, bi aldagai horiek oso maila apaletatik abiatu dira eta urrun daude krisiaren aurreko zenbakietatik.

## KONTSUMO ETA INBERTSIOAREN ADIERAZLEAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2016	2017	2017			2018	
			II	III	IV	I	II
<b>Kontsumoa</b>							
Azalera eta kate handietako salmentak	1,9	2,1	1,5	3,3	1,4	2,4	2,2
Txikizkako merkataritza indizea	1,7	0,8	0,7	2,6	0,1	0,8	-0,1
Kontsumo ondasunen ekoizpena	0,2	2,6	4,0	1,1	2,2	-0,3	-1,3
Kontsumo ondasunen inportazioa	-0,5	4,2	-5,2	8,8	7,1	-1,7	-4,7
Turismoen matrikulazioa	5,3	7,3	2,0	5,2	13,7	12,8	8,6
<b>Inbertsioa</b>							
Ekipo ondasunen ekoizpena	8,7	-0,2	-0,9	-3,3	2,8	5,3	6,6
Ekipo ondasunen inportazioa	13,4	5,5	0,6	9,2	3,1	6,3	10,6
Zamaketarako ibilgailuen matrikulazioa	3,6	7,8	-3,5	11,9	15,9	7,8	38,3
Etxebizitza berrientzako bisatuak	-13,4	26,7	4,6	103,1	25,9	-5,9	88,5
Lizitazio ofiziala	-18,0	75,1	129,0	35,1	252,4	53,4	3,1

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustat, Aduana, Sustapen Ministerio, Seopan eta Trafiko Zuzendaritza Nagusiaren datuetan oinarrituta.



Aipatua izan denez, EAEko ekonomiaren moteltze leuna kanpo arloaren zeinu aldaketak eragin zuen, lehen hiruhilekoan ia hamarren bat ekartzetik bigarrenen bi hamarren inguru kentzera igaro zelako. Aldaketa hori jarduera gutxiagoko epealdi batean etorri da, hala esportazioetan nola inportazioetan. Lehenengoak %2,2 areagotu ziren termino errealetan eta bigarrenak, berriz, %2,4ra iritsi ziren. Termino nominaletan, beraien aldakuntza tasak, hurrenez hurren, %4,3 eta %5,4 izan ziren. Horrek esan nahi du aldagai horien salneurriak ia ezer ez igotzetik igoera neurritsuak jasotzera igaro direla.

Merkataritza salerosketen leuntzea agerian geratzen da atzerrian (Estatuko gainontzeko erkidegoak kenduta) saldutako ondasunak (zerbitzuak kenduta) aztertzen direnean. Kasu horretan, esportazioak %6,1 handitu ziren aurreko urteko epe beraren aldean. Tasa hori aurreko hiruhilekoena baino txikiagoa da. Halere, salmenten balioa 6.528 milioi eurora iritsi zen, hiruhileko batean inoiz jaso den altuena baita. Are gehiago, dagoeneko ezagutu den uztaileko datuak %24,3ko aldakuntza utzi du. Horrek iradokitzen du atzerriarekin egiten den salerosketetan erritmo biziari eusten zaiola, muga zergen kontuak zalantzak piztu dituen arren.

Produktu taldeka, energiaren osagaiak bigarren hiruhilekoan erakutsi zuen geldotasuna azpimarratu behar da, urte arteko aldakuntza tasa %0,4 bakarrik izan zelako, hainbat epealditan oso gehikuntza garrantzitsuak jaso eta gero. Gorabehera handi horiek ohikoak dira sektorean, enpresa handi gutxi batzuen erabakipean egoten delako. Bilakaera balioan azertu beharrean saldutako tonatan aztertzen bada, ondorioztatzen da erregai mineralen salmenta %19,1 gutxitu zela. Horrek esan nahi du erregai horien salneurriak oso gorakada handia izan zuela epealdi horretan. Izan ere, Brent motako petrolioaren salneurria 2017ko bigarren hiruhilekoan 45 eurotan zegoen, baina urtebete bat beranduago 65 eurotara iritsi zen.

Energiaz bestelako ondasunen esportazioak bilakaera positiboa erakutsi zuen, %6,8ko urte arteko tasa batekin, baina aurreko emaitzak baino zertxobait txikiagoa. Garraio materialaren salmentak, esportazioen egituran pisu gehien duen atala baita, modu garrantzitsuan apaldu zuen bere aldakuntza tasa, aurreko hiru hiruhilekoetan %10etik gorako balioetatik bigarren hiruhilekoan jasotako %3,0ra. EAEko industriaren beste talde esanguratsuetako batek, makineriak, konpentsatu zuen, neurri batean, moteltze hori. Makinen eta tresnen esportazioak bere tasa hobetu zuen %6,2ra arte. EAEko esportazioen hirugarren osagai nagusiak, hots, metal arruntak eta beren manufakturak, gai izan zen aurreko gehikuntzari eusteko eta %11,1eko tasa eskuratu zuen. Gainontzeko atalek, askoz pisu gutxiago baitute, oso tasa esanguratsuak izan zituzten. Esate baterako, nekazaritzako produktuen salmenta %12,4 handitu zen, produktu kimikoena, berriz, %19,3 eta paperarena %13,9.

Esportazioen banaketa geografikoak jarraipena eman zion aurreko hiruhilekoetako ereduari eta gero eta protagonismo handiagoa eman dio herrialde garatuetako merkatuei, oraindik bizitasun handia eskaintzen baitute bilakaeran. Zehazkiago adierazita, atzerrian saldutako ondasun guztien %82 ELGEko herrialde batera joan zen, munduko gainontzeko tokietara %18 bideratu zen bitartean. Bi kasuetan, salmenten gehikuntza moteldu da, aurreko hiruhilekoetan egonkortasuna hautematen zen bitartean. Izan ere, herrialde garatuetan saldutakoa %7,1 hazi zen, aurreko hiruhilekoaren %12,0aren aldean. Garapen bidean dauden herrialdeetara, berriz, %1,8 gehiago bakarrik bidali zen, lehen hiruhilekoaren %5,6aren ondoren.

### ESPORTAZIOEN HELBURUA

Urte arteko aldakuntza tasak eta mila euro

	2016	2017	2017		2018		
			III	IV	I	II	II
<b>GUZTIRA</b>	<b>-1,6</b>	<b>10,5</b>	<b>12,7</b>	<b>11,1</b>	<b>10,9</b>	<b>6,1</b>	<b>6.527.910</b>
ELGE	1,0	10,6	13,4	12,3	12,0	7,1	5.354.427
Europar Batasuna	0,7	9,4	11,8	11,9	8,5	7,8	4.246.123
Frantzia	4,4	12,4	14,0	16,9	12,4	6,0	1.018.814
Alemania	-1,4	3,1	4,8	7,7	5,2	7,0	1.028.782
Erresuma Batua	-9,4	16,6	24,1	9,9	16,0	1,8	405.724
Italia	-9,0	2,1	8,3	7,3	12,3	21,7	325.706
AEB	-10,5	18,5	49,3	16,9	47,1	17,7	561.070
ELGETik kanpokoak	-11,8	9,9	9,7	6,2	5,6	1,8	1.173.483

Iturria: Eustat.

ELGE osatzen duten herrialdeen artean, merkatu estatubatuarrak protagonismoa irabazten jarraitu du, EAEko enpresei erositakoa oso nabarmen handitu zuelako berriro (%17,7). Herrialde horretara bidaltzen den atal nagusia erregai mineralak dira, esportatutako guztiaren %35 biltzen dutelako eta balioa %14,1 handitu dutelako. Horrekin batera, makineria mota guztiak ere pisua irabazten ari dira eta jadanik herrialde horretan saldutakoaren laurdena bereganatu dute. Makina eta tresna elektrikoek esportazioak bikoiztu zituzten (%105,7), baina makineria mekanikoa barnean hartzen duen atala egonkor mantendu zen. AEBetan saldutakoaren laugarren zutabeak, galdaketako manufakturak, %43,0ko gehikuntza tasa eskuratu zuen eta sei hiruhileko kateatu ditu emaitza bikainak jasotzen. Europako altzairuari eginiko mehatxua desagertu izanak lagundu du produktu hori herrialdean saltzen jarraitzen.

EAEk atzerrira esportatzen duen guztiaren bi herenak Europar Batasunera bideratzen dira. Beraz, eremu hori merkatu behinena da EAEko eragileentzat. Lurralde horrek %7,8 gehiago erosi zuen EAEn, hots, batez bestekoa baino zertxobait gehiago, baina 2017ko hazkundera (%9,4) iritsi gabe. Eremu horretan saldutakoaren egituran pisu handiena daukan atala ibilgailu automobilena da, guztizkoaren %30,3 biltzen baitu eta apal hazi zen (%4,6). Hala eta guztiz ere, makineriak %15,0aren inguruan hobetu zituen bere emaitzak. Burdinaren eta altzairuaren galdaketak ere emaitza garrantzitsua (%31,3) eskuratu zuen. Txanponaren ifrentzua erregai mineralak izan ziren, beren prezioa garestitu zen arren, salmenten balioa, urte arteko tasan, %13,3 gutxitu zelako.

Frantziak eta Alemaniak jasotzen dute Europara bidaltzen den guztiaren ia erdia eta partaidetza kuotak eta bidalitako kantitateak antzekoak dira bi herrialdeetan. Haietako bakoitzak 1.000 milioi euro baino gehiago balio zuten EAEko produktuak erosi zituen. Alemaniaren kasuan, bidaltzen den produktu nagusia ibilgailu automobilak dira, beraren eskarien erdia osatzen duelako. Bigarren hiruhilekoz jarraian, atal horren gehikuntza oso txikia (%1,2) izan zen, baina erremintak eta tresnak atalaren portaera bikainak (%152,1) konpentsatu zuen, laugarren epealdia kateatu baitu aldakuntza tasa bikainak jasoz. Makineria mota guztiek %7,0aren inguruko aldakuntza tasak eskuratu zituzten eta herrialdera esportatutako guztiaren balioa %6,0 handitu zen, hots, lehen hiruhilekoaren erdia.

Frantziara esportatzen dena ez dago horrenbeste ibilgailu automobilen menpean, nahiz eta hura den pisu gehien daukana salmenten egituran (%20aren ingurua). Talde horrek %2,7 gutxitu zuen bidalitakoaren balioa. Erregai mineralak, herrialde horretara gehien esportatzen den beste produktu bat baita, %24,7 jaitsi ziren. Datu txar horiek konpentsatuta geratu ziren burdinaren eta altzairuaren galdaketak (%45,0) eta makina eta tresna mekanikoek (%28,1) izan zuten bultzadarekin. Aurreko guztiaren ondorioz, esportazioen guztizkoa %7,0 hazi zen.

Erresuma Batuarekin dauden harremanetan oso garrantzitsua da automobilgintza eta ibilgailu automobilen atalak guztizkoaren %35,3 bereganatzen du. Pisua daukaten beste adar batzuk burdinaren eta altzairuaren galdaketa (guztizkoaren %15,2) eta makina mekanikoak (%14,5) dira. Hiru talde horiek aldakuntza tasa esanguratsuak eskuratu zituzten bigarren hiruhilekoan (%8,9, %60,1 eta %11,5, hurrenez hurren). Hala eta guztiz ere, helburu horretan saldutakoaren balioa %1,8 bakarrik igo zen, pisua daukaten beste atal batzuek, hala nola erregai mineralenak, esportazioak nabarmen gutxitu zituztelako.

Italiaren kasua Erresuma Batuarenaren antzekoa da, hiru produktu talde horiek esportazioak erritmo onean areagotu zituztelako. Halere, herrialde horretara bidalitakoa ez zuten kaltetu beste talde batzuen emaitza txarrek eta guztira %21,7ko aldakuntza tasa lortu zen, aurreko

balioen oso gaintetik dagoena. Herrialde horren ekonomia erakusten ari den ahultasuna ez da, oraingoz, oztopoa izan EAEko enpresek bere produktuak merkatu horretan saltzeko.

Beste hiruhileko batez, EAEko esportazioak gutxiago hazi ziren ELGETik kanpoko herrialdeetan erakunde horretako ekonomietan baino. Hain zuzen ere, bigarren hiruhilekoan, urte arteko tasa %1,8an geratu zen, azken sei epealdietako txikiena. Merkatu horretan gehien saltzen den produktu mota makineria da eta esportatutako balioa %10,0 baino zertxobait gehiago jaitzi zen. Halere, beherakada hori konpentsatuta geratu zen ibilgailu automobilen bilakaera onarekin (%44,6), esportazioen egituran pisua irabazi baitute, eta erregai mineralen (%182,3) hazkundearekin.

Eremu horretako helburu nagusietako bat Txina da eta EAetik herrialde horretara bidalitako esportazioek oso portaera negatiboa izan zuten, %21,3 murriztu zirelako epealdi horretan. Hala makinek nola galdaketako manufakturrek, bi atal garrantzitsuenak baitira, nabarmen gutxitu zituzten zenbakiak merkatu horretan. Aitzitik, Brasilen saldutakoa modu esanguratsuan (%33,5) areagotu zen, produktu kimikoen eta erregai mineralen eskaera ezohikoei esker, herrialde horretan erosi ohi diren produktuek (makinak eta aeronautikako ondasunak) beren balioa asko murriztu zuten bitartean. EAErako merkatu garrantzitsu bihurtzen ari den garatzeko bidean dagoen herrialde bat Iran da, 2017an saldutakoaren aldean aurtengo emaitza halako hiru delako. Hala eta guztiz ere, AEBek herrialde horri ezarri nahi dizkieten neurriak oztopoa izan daitezke merkataritza harreman hori finkatzeko.

Inportazioek esportazioek baino portaera dinamikoagoa izan zuten aurtengo bigarren hiruhilekoan, %8,7ko igoera batekin. Hala energiako produktuek (%10,5) nola gainontzekoek (%8,2) gehikuntza tasa esanguratsuak eskuratu zituzten hiruhileko horretan. Azken horien artean, metal arruntak eta beren manufakturrek (%15,2) eta makinak eta aparailuek (%13,7) aldakuntza garrantzitsuak izan zituzten. Pisu gutxiago duten beste atal batzuetan ere emaitza onak lortu ziren, hala nola nekazaritzako produktuetan (%20,7) eta garraio materialean (%9,0), baina produktu kimikoen (%-20,4) eta gainontzeko manufakturrek (%-5,2) konpentsatu zuten.

Inportazioen gorakada handiagoa da garapen bidean dauden herrialdeetan (%17,0) garatuetan (%4,6) baino, erregai mineralak proportzio handiago batean herrialde haietatik ekarri direlako. Hain zuzen ere, bigarren hiruhilekoan produktu horien erosketa Europako herrialdeetatik, hau da, Norvegiatik eta Erresuma Batutik, beste ekonomia batzuetara aldatu da. Zehazkiago adierazita, energiako ondasunen hornitzaile nagusiak berriro izan dira Libia eta Mexiko, erosketa guztien herena bereganatzen baitute. Ondoren, Brasil, Nigeria eta Ekuatore Ginea daude, azken herrialde hori lehen aldiz agertzen da hornitzaile nagusien artean.

**INPORTAZIOEN JATORRIA**

Urte arteko aldakuntza tasak eta mila euro

	2016	2017	2017		2018		
			III	IV	I	II	II
<b>GUZTIRA</b>	<b>-8,0</b>	<b>20,5</b>	<b>22,5</b>	<b>13,9</b>	<b>2,9</b>	<b>8,7</b>	<b>5.031.699</b>
ELGE	-7,7	17,8	23,0	8,9	1,5	4,6	3.254.386
Europar Batasuna	-8,1	13,4	14,2	5,6	-6,0	2,7	2.612.853
Frantzia	9,5	6,8	11,7	5,4	4,8	11,5	745.051
Alemania	-8,9	12,0	14,2	18,9	11,9	14,5	491.963
Erresuma Batua	-51,7	62,8	76,5	-26,5	-57,0	-42,2	155.112
Italia	3,5	7,7	7,1	9,9	11,9	9,0	264.615
AEB	-3,9	18,8	39,2	34,3	0,8	-30,4	81.155
ELGETik kanpokoak	-8,5	26,9	21,6	26,5	6,4	17,0	1.777.313

Iturria: Eustat.

Erregai mineralen jatorria aldatu izanak eragina dauka Europar Batasuneko emaitzan, EAEn eginiko salmentak %2,7 bakarrik handitu zuelako. Hala eta guztiz ere, emaitza apal hori Erresuma Batutik inportatutako energiako produktuen jaitsieraren ondorioa da, zeren eta Europako gainontzeko ekonomia nagusiek oso gehikuntza tasa esanguratsuak eskuratu zituztelako. Zehatz-mehatz, EAEko eragileek Alemanian eginiko erosketak %11,5 handitu ziren. Herrialde horretatik batez ere makineria mota ezberdinak inportatu ziren, gehikuntza nabarmenak izan zituztenak, eta ibilgailu automobilak, hazkunde neurritsuagoa (%3,3) izan zutenak. Beste aldetik, Frantziatik inportatutakoaren balioa %14,5 igo zen, aurreko hiruhilekoetako balioen antzera. Kasu horretan, beraren bi atal nagusiek, hots, burdinaren eta altzairuaren galdaketak (%12,3) eta makinak eta aparailu mekanikoeak (%56,4) gehikuntza garrantzitsuak izan zituzten. Azkenik, Italiak %9,0 areagotu zituen salmentak EAEn. Herrialde horrek Frantziarako aipatu berri diren produktu mota berberak bidaltzen dizkie EAEko eragileei eta bi kasuetan oso gehikuntza tasa handiak lortu ditu.

Esportazioen eta inportazioen datuetatik eratortzen den merkataritza saldoak 1.496 milioi eurora iritsi zen, EAEn aldekoa, aurreko hiruhilekoetan eskuratutako balioetatik hurbil dagoela. Hala ere, energiaren bestelako saldoa 2.167 milioi eurokoa izan zen, inoiz jaso den kopururik altuenetako bat baita. Aitzitik, energiaren saldoa negatiboa izan zen berriro eta bigarren hiruhilekoan 671 milioi eurokoa. Petrolioaren garestitu zen arren saldo hori eta aurrekoak ez dira oso ezberdinak.

## Prezioak, soldatak eta kostuak

EAEko ekonomia aztertzen duten adierazle guztiak goranzko joera txiki bat erakusten ari dira, baina oraindik ezin da esan tentsio inflaziogilerik hauteman denik. Izan ere, BPGaren deflatoreak hamarren bat igo zuen bere erregistroa bigarren hiruhilekoan eta %1,0an kokatu zuen. Deflatorearen osagai nagusiek igoera esanguratsua izan zuten. Esate baterako, kontsumo pribatuaren deflatoreak bere emaitza bikoiztu zuen lehen hiruhilekoaren %0,9tik bigarreneko %1,8ra. Era berean, kapital eraketa gordinaren deflatorea %1,6an kokatu zen. Hala eta guztiz ere, igoera horiek inportazioen deflatorearen bilakaerak konpentsatu zituen, petrolioaren garestitzearen ondorioz nabarmen igo zelako.

Kontsumoko prezioei dagokienez, KPIa %2,0an kokatu zen maiatzean eta harez gerotik adierazlea ez da berriro egon bi puntuen azpitik, udako hilekoetan %2,2 eta %2,3aren inguruan ibili delarik. Goranzko presio handiena egiten duten elementuak argindarra, elikagaiak eta erregaia dira. Argindarraren kasuan, handizkako batez besteko prezioa urteko maximoa markatzera iritsi zen, zeren eta industriak CO<sub>2</sub> isuri ahal izateko erosten eta saltzen dituen eskubideak garestitu direlako. Beste aldetik, elikagaien artean, fruta freskoek bizi izan duten garestitzea azpimarratu behar da. Azkenik, erregaiek hazkunde tasak hilekoz hileko gutxitu zituzten arren, oraindik aldakuntza biziak jaso dituzte, petrolio gordinaren salneurriak izan duen bilakaerak kaltetuta.

### KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasak eta ekarpenak

	2016	2017	2018			Ekarpena
			I	II	Abuztua	
<b>Inflazio osoa (%100)</b>	<b>0,0</b>	<b>2,0</b>	<b>0,9</b>	<b>1,8</b>	<b>2,2</b>	<b>2,2</b>
<b>Azpiko inflazioa (%81,8)</b>	<b>0,9</b>	<b>1,1</b>	<b>0,9</b>	<b>1,0</b>	<b>0,9</b>	<b>0,7</b>
- Elikagai landuak (%14,3)	0,9	0,0	1,0	1,3	0,8	0,1
- Industria ondasunak (%24,5)	0,8	0,3	-0,3	-0,1	0,0	0,0
- Zerbitzuak (%43,1)	1,1	1,7	1,5	1,6	1,4	0,6
<b>Hondar inflazioa (%18,2)</b>	<b>-4,2</b>	<b>6,5</b>	<b>0,8</b>	<b>5,2</b>	<b>8,1</b>	<b>1,5</b>
- Landu gabeko elikagaiak (%7,8)	2,6	3,7	1,7	3,9	4,3	0,3
- Energia (%10,4)	-8,2	8,2	0,2	6,3	11,0	1,2

Iturria: INE.

Hain zuzen ere, Brent motako petrolioak nahiko bilakaera egonkorra erakutsi zuen azken hilekoetan, upela 70 eta 75 dolarren arteko balioan saltzen zela, baina irailean ia 80 dolarretara iritsi zen. Igoera horren atzean dauden arrazoietako batzuk hauexek dira: Iranekin zerikusia duten tentsio politikoak, Venezuelan, Nigerian eta Libian gaur egun bizi diren iskanbila politikoak, eta AEBek dauzkaten petrolio izakinek berriki pairatu duten beherakada garrantzitsua.

Euroguneko inflazioak ere EAEn bezalako balioak jaso zituen, %2aren inguruko erregistroak jasota. Han ere argindarraren eta elikagaien prezioen igoerak gorarazi zuen indize orokorra, zeren eta azpiko inflazioaren adierazleak, oro har, maila apaletan geratu baitziren. Epe laburrean, energiaren salneurriak oraindik igoko direla aurreikusten da, petrolioaren prezioa are handiagoa delako. Hala ere, epe luzeago batean, inflazioaren aurreikuspenetan dagoen ziurgabetasuna gutxituko da.

Beste aldetik, azken hilekoetan azpiko inflazioak oso tasa apaletan jarraitu zuen, %1,0aren ingurukoa, nahiz eta urte hasieran jaso zituen minimoen (%0,6) gainera kokatu zen. Adierazle horren barnean, pisu handiena daukan taldeak, hots, zerbitzuek, beheranzko joera eskaini zuen. Landutako elikagaiek ere leuntzeko norabidea erakutsi zuten. Aitzitik, energiako produkturik gabeko industria ondasunek, oraindik jasotzen dituzten hazkunde tasak oso esanguratsuak ez diren arren, aurreko epealdietako aldakuntza tasa negatiboak atzean utzi zituzten, argindarraren prezioen bizkortzearen ondorioz.

Kontsumoko prezioak energiak eta landu gabeko janariak gorarazi zituztenez, osagai gorabeheratsuenak biltzen dituen adierazleak, hots, hondar inflazioak, urte hasieran hartu zuen goranzko joerari jarraipena eman zion. Zehatz-mehatz azalduta, landu gabeko elikagaien tasa %4,3an kokatu zen abuztuan, ezagutu den azken hilekoa baita, fruta freskoen salneurrien gehikuntza nabarmenak oso negatiboki kaltetuta. Aldi berean, energiaren garestitzea bi zenbakietara (%11,0) iritsi zen, lehenago ere aipatu den petrolio gordinaren prezioaren bilakaeragatik.

Argindarraren garestitzearen ondorioz, azken hilekoetan etxebizitza taldeak izan du eragin handiena KPI indizearen bilakaeran, nahiz eta garraioa den oraindik urte arteko aldakuntza tasa altuena (%5,1) jaso duena. Tasa horiek azken bi hilekoetan gutxitu ziren, automobilen prezioek behera egin zutelako, kontzesionarioek isurien araudi berria indarrean sartu baino lehen deskontuen kanpaina bati ekin ziotelako. Beste aldetik, inflazioaren bilakaera beherantz eramaten ari diren taldeen artean, aisialdia eta kultura taldea (%-1,1) nabarmendu behar da, turismo paketeak 2017an baino gutxiago garestitu zirelako.



**EAE-KO KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEA**

Urte arteko aldakuntza tasak

	2016	2017	2017		2018		
			III	IV	I	II	Abuztua
<b>Indize orokorra</b>	<b>0,0</b>	<b>2,0</b>	<b>1,8</b>	<b>1,4</b>	<b>0,9</b>	<b>1,8</b>	<b>2,2</b>
Janariak eta alkohol gabeko edariak	1,6	1,2	0,7	2,0	1,2	2,2	2,0
Edari alkoholodunak eta tabakoa	0,4	1,7	1,6	1,7	1,5	2,4	2,7
Jantziak eta oinetakoak	0,8	0,7	0,8	0,4	0,6	1,3	1,2
Etxebizitza, ura, elektrizitatea, gasa	-4,1	3,7	2,7	1,9	0,0	2,0	4,8
Etxeko hornidura	0,5	-0,3	-0,6	-0,8	-0,3	0,4	0,3
Medikuntza	1,0	1,1	1,1	0,4	0,2	0,1	0,2
Garraioa	-1,8	4,3	3,2	2,7	1,5	4,2	5,1
Komunikazioak	2,6	1,3	1,0	0,5	1,8	2,6	2,7
Aisia eta kultura	-1,0	1,9	2,0	1,3	0,2	-0,1	-1,1
Irakaskuntza	0,6	1,6	1,6	1,5	1,1	1,0	1,0
Hotelak, kafetegiak eta jatetxeak	1,0	1,8	2,4	1,9	1,8	1,7	1,6
Besteak	1,7	0,7	0,4	0,1	0,2	0,4	1,1

Iturria: INE.

Kontsumoko prezioek bezala, industria ekoizpenaren salneurriek ere igoera bizkortu zuten, IPRIk neurtzen duenez. Hain zuzen ere, indize orokorrak %5,1eko tasa jaso zuen abuztuan, sei hilekoz jarraian gehikuntzak kateatuz. Bizkortze horren atzean, dagoeneko aipatu den argindarraren garestitzea dago. Horixe baieztatzen du energiaren osagaiak, beraren tasek %15 gaintu zutelako. Halako tasarik ez zen iazko hasieratik jasotzen. Hala ere, energia albo batera uzten bada, energia gabeko IPRIak gehikuntza tasa apalak aurkeztu zituela, 2017ko erdialdean hasi zuen moteltze progresiboko joera berreskuratuz.

Negoziatutako soldaten hazkunderari buruz LHK-k eskaini duen informazio berrienak adierazten du uztaila arte soldatak nabarmen igo zirela aurreko urteetako emaitzekin alderatzen direnean, lan merkatuaren baldintzekin bat eginda. Hain zuzen ere, indarrean dauden lan hitzarmenek %2,0ko igoera jaso dute eta aurtengo urtean zehar adostutakoetan hazkundera %2,3ra iritsi da, gaur eguneko inflazioaren zertxobait gainetik. Azpimarratu behar da negoziazio kolektiboak aurtengo lehen seihilekoan izan duen garapena, zeren eta oraindik apala izan arren, azken hiru urteetan jasotako altuena baita. Izan ere, langileen %38k hitzarmena eguneratuta dauka, iaz baino ia bost puntu gehiago, %46,7k aurrekoa luzatuta dauka eta gainontzeko %15,3rentzat hitzarmenaren edukia bertan behera geratu da.

**HITZARMENETAN ADOSTUTAKO SOLDATA IGOERAK**

Urte arteko aldakuntza tasak

	2014	2015	2016	2017	2018 (*)
Indarrean dauden hitzarmenak:	0,7	0,6	1,0	1,6	2,0
- Urtean zehar sinatutakoak	0,5	0,8	1,2	1,6	2,3
Negoiazio esparruaren arabera:					
- Sektoreko hitzarmenak	0,8	0,6	1,0	1,5	2,1
- Enpresako hitzarmenak	0,6	0,6	1,2	1,6	1,7

(\*) 2018ko uztailea arte erregistratutako hitzarmenak.  
Iturria: Lan Harremanen Kontseilua.

Azkenik, INEk osatzen duen inkestaren datuen arabera, lan kostuak %1,6 hazi ziren bigarren hiruhilekoan, lehenengoan beste. Beraz, lan hitzarmenetan adostutako igoeraren azpitik geratu dira. Adierazi behar da, hazkunde horri esker dagoeneko lau hiruhilekotan jarraian jaso direla igoerak, batez ere zerbitzuetan gauzatu direnak, sektore horren kostuak %2,2 handitu zirelako. Hala eta guztiz ere, analisia lan egindako ordu bakoitzeko egiten bada, emaitza oso ezberdina da, zeren eta lan kostua orduko %2,5 murriztu baitzen, benetan egindako lan orduen kopurua 2018ko bigarren hiruhilekoan %4,3 igo zelako, iazko epealdi berean %7,4 murriztu zen bitartean.

**LAN KOSTUAK**

Urte arteko aldakuntza tasak

	2016	2017	2017			2018	
			II	III	IV	I	II
Lan kostu guztiak langileko	-0,9	0,5	-1,3	1,1	1,2	1,6	1,6
- Soldata kostua guztira	-1,1	0,1	-1,7	1,1	0,8	1,6	1,1
- Bestelako kostuak	-0,3	1,6	-0,1	1,1	2,4	1,7	3,2
Lan kostu guztiak orduko	0,4	0,2	6,6	-1,8	0,7	5,0	-2,5
- Soldata kostua guztira	0,2	-0,2	6,1	-1,7	0,3	4,9	-3,1
- Bestelako kostuak	1,0	1,2	8,0	-2,0	2,0	5,1	-1,0
Adostutako lan orduak	-0,6	-0,1	-0,4	0,1	0,1	0,5	0,3
Benetan egindako lan orduak	-1,0	0,0	-7,4	3,0	0,4	-3,2	4,3

Iturria: INE.

## Arlo publikoa

Eusko Jaurlaritzako aurrekontu egikaritzaren azken datuek, abuztu artekoak baitira, oso emaitza positiboak aurkeztu dituzte, hainbat hilekoz joera negatiboa erakutsi ondoren. Hain zuzen ere, epealdi horretan finantzatzeko ahalmena oso nabarmen handitu zen (%129,8), diru sarrera arruntek goranzko norabideari jarraipena eman ziotelako (%5,1), izaera bereko gastuak oso gutxi (%0,8) gehitu ziren bitartean. Izan ere, finantzaz bestelako baliabideen igoera, batez ere, zergen gehikuntza orokorrak azaltzen du. Aitzitik, finantzaz bestelako gastuen edo erabileren artean, berau osatzen duten atal guztiek oso hazkunde motela aurkeztu zuten, baita negatiboa ere, finantza gastuen kasuan gertatu den bezala (%-9,7), interes tasa txikiek mesedea egin dietelako.

### EUSKO JAURLARITZAREN AURREKONTUKO ERAGIKETAK (urtarrila-abuztua)

Mila euro

	2017	2018	% aldakun.
1. SARRERA ARRUNTAK	6.181.267	6.496.048	5,1
2. GASTU ARRUNTAK	5.721.298	5.769.538	0,8
Langileen gastuak	1.295.770	1.301.086	0,4
Funtzionamenduko gastuak	2.134.320	2.197.593	3,0
Finantza gastuak	122.685	110.752	-9,7
Transferentzia arruntak	2.168.523	2.160.107	-0,4
3. AURREZKI GORDINA (1-2)	459.969	726.510	57,9
4. KAPITALEKO SARRERAK	40.782	36.772	-9,8
5. KAPITALEKO GASTUAK	304.952	313.396	2,8
Inbertsio errealak	78.055	70.680	-9,4
Kapitaleko transferentziak	226.897	242.716	7,0
6. FINANT. AHAL (+) EDO BEHAR (-) (3+4-5)	195.799	449.886	129,8
7. FINANTZA AKTIBOEN ALDAKUNTZA GARBIA	-33.799	-18.596	45,0
8. FINANTZA PASIBOEN ALDAKUNTZA GARBIA	576.998	234.910	-59,3
9. AURREKONTU SUPERABITA/DEFIZITA (6+7+8)	738.998	666.200	-9,9
10. AURREKONTU SUPERABITA/DEFIZITA KUTXA TERMINOTAN	796.663	974.271	22,3

Iturria: Ogasun eta Ekonomia Saila.

Aldagai finantzarioa ere kontuan hartzen bada, finantzaziorako ahalmena aurrekontu superabit bihurtzen da, 666,2 milioi euroko tamaina duena, bereziki zorpetzearekin lotzen den kapituluak, hots, finantza pasiboen aldakuntza garbiak, izan duen beheranzko (%-59,3) bilakaeraren ondorioz.

EAEko itunpeko zergen bidez bildutako diru kopuruari dagokionez, 2018ko abuztua arte, diru sarrerak 9.552,2 milioi eurora iritsi ziren, 2017ko epealdi berean jaso ziren 9.100,1 milioi euroen aldean. Horrek esan nahi du %5eko gehikuntza lortu dela azken urtebetean, aurreko emaitza onei jarraipena emanez. Berriro ere, portaera on hori zuzeneko zergetan zein zeharkako zergetan mamitu da, hurrenez hurren beraien gehikuntza tasak %9,1 eta %8,4 izan zirelako.

Zuzeneko zergen artean, PFEZren gehikuntza azpimarratu behar da, aurtengo lehen zortzi hilekoetan iazko epealdi berean baino 255 milioi euro gehiago bildu duelako, %8,0ko aldakuntza tasa positiboa utziz. Diru sarrera horiek, batez ere, zergan pisu gehien duen kapituluari esker hazi ziren, hots, lan etekinen gaineko atxikipenei esker, enpleguaren gorakadak mesedea egin zirelako. Hala ere, joerak nolabaiteko moteltzea iradokitzen du. Atxikipenen hobekuntza horri erantsi behar zaio kapitaleko errenta guztien bilakaera positiboa, hala kapital higigarriarena (%19,0) nola ondare irabaziena (%17,2). Lehenengoak azken hilekoetako goranzko joera baieztatu zuen, dibidenduen eta finantza aktiboetatik eratorritako errenten hobekuntzari esker. Ondare irabaziek, berriz, moteltze garrantzitsua aurkeztu zuten, errenta aldakorreko bigarren mailako merkatuetan jaso ziren emaitzak okerragoak izan zirelako.

Era berean, beste zuzeneko zerga nagusiak, hots, sozietateen gaineko zergak hazkunde nabarmena eskuratu zuen (%13,2), EAEko enpresek izan zuten ekonomia jarduera positiboarekin bat eginez. Horren ondorioz, abuztua arte pilatutako diru kopuruak urte osoan zerga horren bitartez aurreikusi zen diru bilketa gainditua zuen (1.161.900 euro). Hazkunde garrantzitsu hori, berriro ere, egindako itzulketen murrizketaren ondorioa izan da.

Zeharkako zergen diru bilketa ere erritmo onean hazi zen, batez ere bertan kudeatutako BEZaren diru bilketaren emaitza positiboari esker (%10,2), produktuen prezioek izan zuten igoerak eraginda eta familien gastuan nabaritzen hasi den moteltzeari indarra kenduz. Gaur egun ordainketak geroratzeko orduan dagoen jokaera gogorrak ere diru sarreren gehikuntzari mesedea egin dio. Aitzitik, BEZaren doikuntza 2017koa baino askoz ere txikiagoa da (%-21,9), urte horretan Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoan onartu ziren erregularizazio akordioen zati bat sartu zelako.

**ZERGA ITUNDUEN BILAKAERA (urtarrila-abuztua)**

Mila euro

ZERGAK	Diru bilketa		
	2017	2018	% Aldakuntza
PFEZ	3.188.706	3.444.153	8,0
- Lanaren eta lanbide jard. etekinen atxikipenak	3.159.278	3.310.838	4,8
- Kapital higigarriaren etekinen atxikipenak	115.405	137.373	19,0
- Kapital higiezinaren etekinen atxikipenak	56.476	57.334	1,5
- Ondare irabazien atxikipenak	28.930	33.910	17,2
- Loteria eta apustu jakin batzuen g/zerga bereziak	23.104	41.157	78,1
- Prof. eta enpresarien ordainketa zatikatuak	117.911	125.238	6,2
- Kuota diferentzial garbia	-312.397	-261.696	16,2
Sozietateen gaineko zerga	1.035.371	1.172.182	13,2
- Kapital higigarriaren etekinen atxikipenak	115.405	137.373	19,0
- Kapital higiezinaren etekinen atxikipenak	56.476	57.334	1,5
- Ondare irabazien atxikipenak	28.930	33.910	17,2
- Kuota diferentzial garbia	834.560	943.566	13,1
Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga	21.982	11.443	-47,9
Oinordetza eta dohaintzen gaineko zerga	81.375	93.240	14,6
Ondarearen gaineko zerga	159.578	179.695	12,6
Kreditu entitateen gordailuen gaineko zergak.	24.800	24.565	-0,9
Energia elektrikoaren ekoizpenaren gaineko zerga	16.886	17.682	4,7
<b>ZUZENeko ZERGAK GUZTIRA</b>	<b>4.528.698</b>	<b>4.942.960</b>	<b>9,1</b>
BEZaren bertoko kudeaketa	2.426.841	2.674.594	10,2
Ondare eskualdatzeen gaineko zerga	98.272	110.327	12,3
Egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga	26.071	31.020	19,0
Garraio bide jakin batzuen gaineko zerga bereziak	13.978	17.758	27,0
Fabrikazioaren zerga berezia. Bertoko kudeaketa	991.184	1.022.260	3,1
Aseguru sarien gaineko zerga	46.836	48.428	3,4
Joko jardueren gaineko zergak	4.527	5.262	16,2
Berotegi efektuko gasen gaineko zergak	2.679	2.673	-0,2
Iraungitako zergak	-4.105	-4.135	-0,7
<b>ZEHARKAKO ZERGAK GUZTIRA</b>	<b>3.606.284</b>	<b>3.908.185</b>	<b>8,4</b>
<b>TASAK ETA BESTE. SARRERAK GUZTIRA</b>	<b>63.761</b>	<b>70.258</b>	<b>10,2</b>
<b>BERTON KUDEATUTAKO ZERGA ITUNDUAK</b>	<b>8.198.743</b>	<b>8.921.403</b>	<b>8,8</b>
BEZaren doikuntza	1.079.488	843.308	-21,9
Zerga berezian doikuntza	-178.158	-212.542	-19,3
<b>ITUNDUTAKO ZERGAK GUZTIRA</b>	<b>9.100.073</b>	<b>9.552.170</b>	<b>5,0</b>

Iturria: Foru aldundiak.

Azkenik, bertan kudeatutako zerga berezien diru bilketa %3,1 handitu zen aipatutako epealdi horretan, hidrokarburoen bilakaeraren ondorioz, beraren gehikuntza tasa %3,7an kokatu zelako, gasolinaren eta gasolioaren garestitzearengatik. Gainontzeko zergek, alkoholarenak izan ezik (%-45,7), aldakuntza tasa positiboak erakutsi zituzten, baita tabakoaren obrena ere (%2,1), beraren kontsumoa gutxitzen ari den arren.

## Arlo finantzarioa

Udako hilekoetan, azken urteetako hegakortasun gutxiko eta egonkortasun handiko etapa aldatzen hasi zen. Italian bizi den erakunde krisiak eta Espainian gauzatu zen zentsura mozioak ekarri zuten ezegonkortasun hori, abuztuan areagotu zena. Izan ere, hileko horretan zalantzan jarri zen Txinako hazkundearen sendotasuna, AEBek mehatxuak egin zituzten merkataritzaren alorrean eta Turkian finantza alorreko zurrunbiloak areagotu ziren. Zehazkiago adierazita, lira turkiarrak balioaren %60,0 inguru galdu zuen urtarriletik abuztura bitartean eta epe luzerako interes tasak 10 oinarri puntu inguru igo ziren, %21,0an kokatu arte. Gertakari horiek, moneta politika oro har gogortzeko eta arriskua saihesteko testuinguru batean, azalera ari diren ekonomien kotizazioak bereziki kaltetu zituzten eta abuztuan beraien burtsa indizeek eta dibisek galera garrantzitsuak izan zituzten.

### ADIERAZLE MONETARIO ETA FINANTZARIOAK

	2016	2017	2018					
			Apirila	Maiatza	Ekaina	Uztaila	Abuztua	Iraila
Banku Zentralen interes tasak (%)								
Europako Banku Zentrala	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
Erreserba Federala	0,75	1,50	1,75	1,75	2,00	2,00	2,00	2,25
Japoniako Bankua	-0,10	-	-0,10	-0,10	-0,10	-0,10	-0,10	-0,10
Ingalaterrako Bankua	0,25	0,50	0,50	0,50	0,50	0,50	0,75	0,75
Txinako Bankua	4,35	4,35	4,35	4,35	4,35	4,35	4,35	4,35
Brasilgo Banku Zentrala	13,75	7,00	6,50	6,50	6,50	6,50	6,50	6,50
Alemaniako 10 urteko zor publikoarekiko aldea (oinarri puntuak)								
Espainia	119	114	72	115	102	97	117	104
Grezia	690	369	328	425	365	351	406	371
Portugal	357	151	110	161	147	133	159	141
Erresuma Batua	103	76	85	88	97	88	110	110
Italia	161	157	123	237	237	227	291	268

Iturria: Europako Banku Zentrala eta Espainiako Bankua.

Azken hilekoetan, banku zentral nagusiek beren moneta politika doitzeko orduan ezarri duten abiaduran ezberdintasunak daude. Halaber, etorkizunean ere erritmo ezberdinak erabiliko dituzte helburu hori lortzeko. Esate baterako, Fed (%2,25) da bere moneta politika azkarren normaltzen ari den erakundea eta dagoeneko bederatzi aldiz igo du esku hartzeko interes tasa bi urteko epean. Erakunde horren ondoren, Kanadako Bankua, bertako esku hartzeko tasa %1,5era igo baitzuen, eta Ingalaterrako Bankua daude, azken honek interes tasak puntu laurden bat igotzea, %0,50etik %0,75era, erabaki baitzuen, 2009tik izan den tasarik gorena delarik. Orobat, azaleratzen ari diren ekonomien artean, gero eta banku zentral gehiagok erreferentziako tasak goratu dituzte. Haien artean, Indiarena (%6,50), Errumaniarena (%2,50) eta Txekiar Errepublikarena (%1,25) nabarmendu behar dira, guztiek inflazioaren balizko gorakada baten arriskuari aurre egiteko. Aitzitik, Europako Banku Zentralak (%0,0) eta Japoniako Bankuak (%-0,1) ez zuten aldaketarik egin beren erabaki moneta politika egokitzailan eta normalizatzeko prozesuari ekiteko oraindik denbora beharko dutela aurreikusten da.

Ezgonkortasuna izan zen nagusi zor merkatuetan. Maiatzean Italian bizi zen, eta arriskua saihesteko gogo bizia hedatu zuen, ziurgabetasuneko egoeraren ondoren, ekainean eta uztailan periferiako herrialdeen zor subiranoaren errentagarritasunak hasi ziren suspertzen. Orobat, bund alemaniarraren errentagarritasuna ere gutxitu zen, babes aktibo gisa jokatzen duen paperak lagunduta, eta horren ondorioz arrisku sariak uztailan maiatzean jasotakoan antzekoak izan ziren. Abuztuan, Italian 2019rako aurrekontuak eztabaidatzen hasi ziren eta horrek tentsioak ekarri zituen berriro. Horri erantsi behar zaio azaleratzen ari diren herrialdeen ezgonkortasuna, batez ere Argentinan eta Turkian bizitakoa. Bi arrazoi horien ondorioz, zorraren interes tasak gorantz egin zuen eta burtsaren kotizazioak, ordea, behera. Presio berri horiek gorantz eramane zituzten zertxobait periferiako arrisku sari gehienak, eta oso gora Greziarena, bertako arrisku saria 400 oinarri puntuen ginetik kokatu baitzen.

Goranzko joera hori irailaren hasieran irauli zen, azaleratzen ari diren herrialdeetako merkatuak egonkortzen hasi zirenean. Espainian, arrisku saria 100 oinarri puntuen azpian kokatu zen eta gero zenbaki horren inguruan jarraitu du, baina ez zor espainiarraren interesak gutxitu zirelako -irailean, errentagarritasuna %1,56aren ginetik kokatu zen, azken lau hilekoko maximoa-, bund alemaniarraren errentagarritasuna are gehiago igo zelako baizik. Europako burtsek irailean izan zuten goranzko joerak babesa bilatzeko gogoia hoztu zuen eta inbertitzaileen perfil ez horren defentsiboak zor alemaniarraren salmenta handiak ekarri zituen.

Nazioarteko burtsa nagusiek portaera kontrajarria erakutsi zuten udan zehar, abuztuan bizi ziren zurrunbiloek markatuta. Izan ere, European, finantza alorreko kotizazioak noraezean ibili ziren, baina joera negatibo argi batekin, ez bakarrik azaleratzen ari diren herrialdeetan bizi zen ezgonkortasunagatik, baizik eta Italiako politika fiskalaren inguruan sortu zen



ziurgabetasunagatik ere. AEBetan, ordea, errenta aldakorrak errekorrek markatu zituen berriro eta maximo historiko berriak lortu zituen. Azkenik, garapen bidean dauden herrialdeak kaltetuenak izan ziren. AEBetan interes tasak igo ziren eta dolarrak sendotasuna irabazi zuen. Horri erantsi behar zaio protekzionismoa handituko den beldurra. Halaber, aurreko guztiari gehitu behar zaio Turkian eta Argentinan gauzatu ziren desoreka ekonomikoek ekarri zuten ezegonkortasuna, azaleratzen ari diren herrialdeetara kutsatu baitzen eta, oro har, guztiak kaltetu zituen. Zehatz-mehatz adierazita, MSCI burtsaren indizea %3,8 jaitsi zen abuztua eta iraila bitartean.

#### ADIERAZLE MONETARIO ETA FINANTZARIOAK

	2016	2017	2018					
			Apirila	Maiatza	Ekaina	Uztaila	Abuztua	Iraila
<b>Truke tasak</b>								
Dolarra/euro	1,107	1,129	1,228	1,181	1,168	1,169	1,155	1,166
Yena/euro	120,3	126,7	132,16	129,57	128,53	130,23	128,20	130,54
Libera esterlina/euro	0,819	0,876	0,872	0,877	0,879	0,887	0,897	0,892
Yena/dolarra	108,8	112,2	107,7	109,7	110,1	111,4	111,0	112,0
€ efektibo nominala (%)	94,4	96,6	99,5	98,1	97,9	99,2	99,0	99,5
<b>Burtsa indizeak (*)</b>								
IBEX35	-2,0	7,4	-0,6	-5,8	-4,2	-1,7	-6,4	-6,5
Eurostoxx-50	0,7	6,5	0,9	-2,8	-3,1	0,6	-3,2	-3,0
Dow Jones	13,4	25,1	-2,2	-1,2	-1,8	2,8	5,0	7,0
Nikkei 225	0,4	19,1	-1,3	-2,5	-2,0	-0,9	0,4	6,0

(\*) Hazkunde metatua urte hasieratik hilearen azken egunera arte.  
Iturria: Europako Banku Zentrala eta Espainiako Bankua.

Dibisen merkatuari dagokionez, euroaren truke tasa efektiboak ez zuen joera garbirik erakutsi. Uztailean, galdutakoaren zati bat berreskuratu bazuen ere, abuztuan berriro egin zuen atzera. Euroaren balio galera horren arrazoi nagusia dolarraren balio irabazian datza. AEBetako ekonomiak bizi duen une gozoak eta herrialde hartako interes tasen igoerak billete berdearen balioa gorarazi zuten, interes tasa altuek kapitala erakartzen dutelako eta dibisa horren eskaria eta balioa igotzen dituztelako. Aitzitik, Europako Banku Zentralak (EBZ) tasa apalei eutsi die eta ekonomiaren hazkundeak indarra galdu du. Beste aldetik, garapen bidean dauden herrialdeek, bereziki Argentinak eta Turkiak, ikusi zuten nola ziurgabetasunak eta Trumpen merkataritza gerrak beren dibisak ahultzen zituzten. Irailean, Mexikoren eta AEBen arteko merkataritza akordioaren gaineko igurikimenez eta azken herrialde horrek Txinarekin eta Kanadarekin zuen



merkataritza gerrak dolarraren balioa ahuldu zuten, euroaren eta urrea babes aktibo gisa bultzatuz.

Interes tasen egonkortasunak eta arrisku sarien beheranzko joera leunak eremu negatiboan utzi zuten euriborra (%-0,17), hogeita hamaika hilekoz jarraian. Orobat, EAEko familien egoera onbideratuak eta, Espainiako Bankuak argitaratzen duen Banku Maileguei buruzko Inkestaren arabera, hipoteka maileguan emateko orduan erabiltzen diren irizpideak bigunagoak izateak hipoteken formalizazioa bultzatu zuten 2018ko bigarren hiruhilekoan. Zehatz-mehatz adierazita, 2017ko epealdi berean baino 398 hipoteka gehiago sinatu ziren. Gorakada horrek atzean utzi ditu sei hilekotako etengabeko jaitzierak. Hipoteken bitartez eman den diruaren guztizkoa ere hazi zen, kasu horretan %6,9, eta 619 milioi eurora iritsi zen, 2012ko lehen hiruhilekotik jaso den kopururik gorena baita. Azkenik, hipoteka guztien %39,7 tipo finkora sinatu ziren eta gainontzeko %60,3, berriz, tipo aldakorrera. Krisia hasi zenetik, tipo finkora izenpetutako hipotekak %3,2tik ia %40,0 izatera igaro dira.

### Etxebizitzaren hipoteken bilakaera

Zenbatekoa (ezkerrean, milioiak) hipoteka kopurua (eskuinean, milak)

Euriborra 12 hilera



Iturria: INE eta Espainiako Bankua.

Enplegu sorrerak eta familiek eta enpresek izan dituzten finantzaziorako baldintza onak aukera eman zieten kredituei aurtengo bigarren hiruhilekoan hazkunde tasa positiboak berreskuratzeko. Izan ere, bederatzi hilekoz jarraian murrizketak jaso ondoren, kreditu pribatuak, oro har, hala etxebizitza bat erosteko nola kontsumorako bideratu direnak %0,2 hazi ziren eta publikoak, berriz, %4,0. Egia da azken hilekoetan nolabaiteko kezka sortu dela

kontsumorako kredituek izan duten hazkunde biziarengatik –Espainiako Bankuak, finantza egonkortasunaz ezagutarazi duen bere azken txostenean baieztatu du kontsumorako finantzazioa Espainian %4,0 handitu dela 2014ko abendutik 2018ko ekainera bitartean, eta jadanik 85.000 milioi euroen inguruan dagoela (2008an jaso zen maximoaren %79,0)-, baina ez du ematen EAEko eragileek bat egiten dutenik joera horrekin. Izan ere, zorpetzea berriro gutxitu zuten 2017ko amaieran zeukaten mailaren aldean. Are gehiago, azken datuen arabera, familien eta enpresen zorpetze maila gaur egun 2008an jaso zen maximoaren %24,8 beherago dago. Horrek esan nahi du data horretatik aurrera zorra 21.192 milioi eurotan baino gehiagotan jaitsi dela.

## KREDITU ETA GORDAILUAK

Urte arteko aldakuntza tasak eta milioi euro

	2016	2017	2017		2018			Aldea 2008-IV eta 2018-II artean	
			III	IV	I	II	II	Milioi €	Tasa
<b>Kredituak</b>	<b>2,2</b>	<b>-1,0</b>	<b>-3,5</b>	<b>-1,0</b>	<b>-2,5</b>	<b>0,6</b>	<b>72.639,3</b>	<b>-14.780,3</b>	<b>-16,9</b>
Arlo publikoa	5,4	-5,5	-6,9	-5,5	-3,0	4,0	8.440,2	6.411,9	316,1
Arlo pribatua	1,8	-0,5	-3,1	-0,5	-2,4	0,2	64.199,0	-21.192,2	-24,8
<b>Gordailuak</b>	<b>1,9</b>	<b>4,7</b>	<b>2,0</b>	<b>4,7</b>	<b>0,3</b>	<b>3,4</b>	<b>81.465,4</b>	<b>5.121,9</b>	<b>6,7</b>
Arlo publikoa	-0,2	11,2	28,0	11,2	32,6	13,6	4.259,2	-1.474,0	-25,7
Arlo pribatua	2,0	4,4	1,0	4,4	-0,9	2,9	77.206,3	6.595,9	9,3
Agerikoak	15,0	20,9	17,0	20,9	11,4	10,5	61.104,9	34.117,4	126,4
Eperakoak	-16,6	-27,3	-27,6	-27,3	-28,2	-18,4	16.101,3	-27.521,5	-63,1

Iturria: Espainiako Bankua.

Beste hiruhileko batez, gordailuen errentagarritasunak, bai eperakoa (%0,05 abuztuan) bai agerikoak (%0,03 hileko berean), balio minimotan jarraitu zuen. Beraz, errentagarritasunaren ikuspegitik produktu horietan inbertitzea ez da oso erakargarria. Hala eta guztiz ere, burtsa nagusiek erakutsi duten ezegonkortasuna ikusita, arlo pribatuak gordailuen alde jokatu zuen berriro eta haiekin batera likideziaren alde, balizko eszenategi zailei aurre egiteko berme gisa. Zehatz-mehatz adierazita, gordailu pribatuak %2,9 hazi ziren, ageriko eta konturako gordailuek bultzatuta, %10,5 handitu zirelako. Eperako gordailuei dagokienez, haiek behera egin zuten berriro. Finantza produktu horrek ez du lortu hazkunde positiboak berreskuratzea 2014ko hasieratik. Izan ere, aurtengo lehen sei hilekoan, EAEko eragileek 3.636 milioi euro baino gehiago atera dute eperako produktuetatik. Datu hori 27.520 milioi eurora iristen da alderaketa 2008ko amaieran produktu mota horretan guztira inbertitu zen diru kopuruarekin egiten denean.

## Aurreikuspenak

Nazioarteko erakundeek egonkortasuna aurreikusten dute munduko ekonomiaren 2018ko hazkunderan, moteltzeko joera arina izango duena 2019an. Izan ere, Consensus Forecastek irailan argitaratu zituen aurreikuspenek %3,3an kokatzen dute munduko ekonomiaren hazkunde tasa 2018an eta %3,1ean, berriz, 2019an. Tasa horiek adierazten dute munduko ekonomiak erritmoari eusten diola eta gero eta herrialde gutxiagok erakutsiko dutela gehikuntza tasa handiagoak. Alderdi gakoa merkataritzako hesien gauzatzea da, horrek munduko merkataritza galgatu duela eta ziurgabetasuna handituko duela, inbertsioan eragin negatiboa utziz.

### EKONOMIA AURREIKUSPENAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG			Kontsumo prezioak		
	2017	2018	2019	2017	2018	2019
Munduko ekonomia	3,2	3,3	3,1	2,5	2,9	2,7
AEB	2,2	2,9	2,6	2,1	2,5	2,3
Kanada	3,0	2,0	1,9	1,6	2,4	2,1
Japonia	1,7	1,1	1,2	0,5	0,9	1,1
Eurogunea	2,5	2,1	1,8	1,5	1,7	1,6
Europar Batasuna	2,4	2,0	1,8	1,7	1,9	1,8
Alemania	2,2	1,9	1,7	1,8	1,8	1,8
Espainia	3,1	2,7	2,3	2,0	1,8	1,6
Frantzia	2,3	1,7	1,7	1,0	1,9	1,6
Herbehereak	2,9	2,7	2,2	1,4	1,6	2,1
Italia	1,5	1,2	1,1	1,2	1,3	1,4
Erresuma Batua	1,7	1,3	1,5	2,7	2,4	2,1
Asia eta Ozeano Barea	5,0	4,9	4,7	1,7	2,1	2,3
Ekialdeko Europa	3,9	3,2	2,7	4,9	5,7	5,7
Amerika Latinoa	1,9	1,9	2,6	6,8	7,6	6,1

Iturria: Consensus Forecasts (2018ko iraila).

Ekonomia aurreratuei dagokienez, AEBetako ekonomia hazkundera %2,9an kokatuko da 2018an eta zertxobait apalduko da 2019an, %2,6 arte, horiek ere Consensus Forecasten arabera. Herrialde horrekiko aurreikuspenak apur bat goratu dituzte. Zikloaren aldeko hedatze fiskalak eta finantza alorreko baldintza onak bultzatuko dute ekonomia estatubatuarra. Beste ekonomia

aurreratu batzuetan, moteltzeko seinaleak agerikoagoak izango dira. Japonian, ekonomiaren hazkundera %1,0aren inguruan kokatuko da 2018-2019 epealdian.

Beste aldetik, azaleratzen ari diren Asiako ekonomiek beste eremu batzuetakoak baino hazkunde erritmo altuagoak jasotzen jarraituko dute. Hala ere, Txinaren jarduerak daukan apaltzea adierazle ekonomikoetan geratzen da islatuta. Orobat, moteltze hori areagotuko dela aurreikusten da, merkataritzako arazoen ondorioz. Ziurgabetasuna jokaera protekzionistaren hedaduran eta beraren gogortzean datza.

Eurogunean, Consensus Forecastek aurreikusi duen hazkunde ekonomikoa %2,1ean kokatuko da 2018an eta %1,8an, berriz, 2019an. Tasa horiek beheranzko berrikusketa ekarri dute, Alemanian, Frantzian eta Italian espero den hazkundera okertuko dela aurreikusten delako. Europako Banku Zentralak espero du interes tasak gaur eguneko mailan jarraituko dutela gutxienez 2019ko uda arte. Aurreikuspen horien oinarrian, finantzaziorako baldintza onak eta nahiko egonkorra bilakatuko den euro bat daude. Dena dela, arriskuak ere badaude. Haietako batzuk orokorrak dira, hala nola merkataritzako gatazkak eta petrolioaren garestitzea, baina beste batzuk ekonomia eremu horretakoak dira, esate baterako Brexitaren negoziatioak, moneta politikaren aldakuntza eta Eurogunekeo herrialde batzuetan bizi diren tirabira politikoak.

### ESPAINIARAKO AURREIKUSPENAK HIRUHILEKOKA (2018ko iraila)

Urte arteko aldakuntza tasak

	2018		2018	2019				2019
	III	IV		I	II	III	IV	
<b>BPG</b>	<b>2,6</b>	<b>2,6</b>	<b>2,7</b>	<b>2,5</b>	<b>2,4</b>	<b>2,2</b>	<b>2,1</b>	<b>2,3</b>
Kontsumo pribatua	2,2	2,2	2,3	2,2	2,2	2,2	2,1	2,2
Kontsumo publikoa	2,1	2,0	2,0	1,9	1,6	1,5	1,4	1,6
Kap. finkoaren eraketa gordina	5,4	5,4	5,0	5,0	4,5	4,0	3,6	4,3
- Inbertsioa ekipamenduan	6,9	6,8	6,0	6,4	5,7	5,2	4,9	5,5
- Inbertsioa landutako aktibotan	4,8	9,2	2,3	13,6	14,1	11,2	6,8	11,3
- Inbertsioa eraikuntzan	4,9	4,8	4,8	4,5	4,1	3,9	3,3	4,0
Barne eskaria	2,9	2,8	2,9	2,7	2,5	2,2	2,1	2,4
Esportazioak	1,8	2,1	2,1	2,5	2,8	3,0	3,1	2,9
Inportazioak	2,5	2,7	2,5	3,1	3,2	3,2	3,2	3,2

Iturria: CEPREDE.

Espainiako ekonomiarako hazkunde aurreikuspena, bai Consensus Forecastek aurkeztu duena bai Cemprederena, %2,7an kokatzen da 2018rako eta %2,3an, berriz, 2019rako. Ekonomiaren bizitasuna barne eskarian oinarrituko da, ekonomia eragileen aurreikuspen positiboek sortzen duten testuinguru batean. Familien kontsumoa BPGaren hazkundearen motor nagusia izaten jarraituko du. Hala eta guztiz ere, moteltzeko joera kontuan hartu den aurreikuspen denbora osora hedatuko da. Enpleguak sortzeko erritmoa gutxituko da, interes tasak igoko dira eta prezioak garestituko dira. Hiru faktore horiek eskariaren agregatuen hazkunde txikiagoa ekarriko dute berekin.

Lanaldi osoko lanpostu baliokidetan, Cempredek moteltzeko joera neurritsua aurreikusten du eta aldakuntza tasa %2,5ean kokatu du 2018rako eta %2,0an, berriz, 2019rako. Beste aldetik, langabezia tasari buruz egin dituzten aurreikuspenek beheranzko joera erakusten dute eta %15,4an kokatzen dute 2018an eta %14,0an, berriz, 2019an.

Ingurune makroekonomikoaz ezagutu diren koiunturako informazioa eguneratuta eta EAEko ekonomiaren berriazko adierazleak kontuan hartuta, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak EAEko ekonomiaren taula makroekonomikoa berrikusi du 2018rako eta 2019rako<sup>1</sup>. Urte horietarako hazkunde aurreikuspenak ez dira aldatu eta gaur ere hazkunde sendoa eta iraunkorra aurreikusten da, ekonomiaren bizitasuna apalduko den arren. Izan ere, BPGaren aldakuntzei buruz dauden aurreikuspenek %2,8an kokatzen dute hazkundea 2018an eta %2,3an 2019an. Kontuan hartu den epealdi osoan, hiruhilekoko hazkunde tasek bilakaera egonkorra izango dutela espero da. Ekonomia aurreikuspen berri hauek Ardura Fiskalerako Agintaritza Independentearen (AIREF) oniritzia daukate, 6/2013ko Lege Organikoak, azaroaren 14koak, xedatzen duena betez.

EAEko barne produktu gordinaren hazkundea bultzatuko duen motor nagusia barne eskaria izango da berriro. Agregatu horrek 2,9 puntu ekarriko dizkio EAEko ekonomiaren hazkundeari 2018an eta 2,4 puntu 2019an. Familiek azken kontsumoan eginiko gastua eta enpresek ekipamendurako ondasunetan egingo duten inbertsioak izango dira ekonomiaren sustatzaile behinenak. Lan merkatuaren egoera onak eta interes tasa apalek aurkia islatuko dute, EAEko

---

<sup>1</sup> Hiruhilekoko BPGa aurreikusteko, aldi berean aritzen diren ekuazio anitzeko eredu ekonometriko bat erabiltzen da. BPGa lortzeko, eskari agregatuaren osagai guztiak batzen dira. Aitzitik, eskaintzaren osagaiak zehazteko, input-output moduko hurbilketa bat erabiltzen da. Azkenik, kongruentziako prozesua bideratzen da, non eskaintzaren osagaien hasieran zenbatetsi diren balioak eskariaren ikuspegitik lortutako BPGaren guztizkora doitzen baitira. Eskari eta eskaintza agregatuen osagaien magnitudeak bolumenean kalkulatzear gain, magnitude bakoitzaren deflatoreak ere sartzen dira. Baita magnitude horien balio nominalak ere. Ereduak lan merkatuaren hurbilketa bat ere eskaintzen du, biztanleria aktibo, landun, langabe eta langabezia tasaren bitartez.

kontsumitzaileek eta enpresariak konfiantza izango duten testuinguru batean. Ifrentzua, berriz, Eurogunerako aurreikuspen ekonomikoak beherantz berrikusi izana da. Eszenategi makroekonomiko berrian kontuan hartu den epealdian, esportazioak eta inportazioak berdintsu haziko direla espero da, kanpo eskariak BPGaren hazkunderari ekarpen hutsala egingo diola bai 2018an bai 2019an.

### EAE-KO EKONOMIARAKO AURREIKUSPENAK HIRUHILEKOKA (2018ko iraila)

Urte arteko aldakuntza tasak

	2018		2018	2019				2019
	III	IV		I	II	III	IV	
<b>BPG</b>	<b>2,7</b>	<b>2,6</b>	<b>2,8</b>	<b>2,4</b>	<b>2,3</b>	<b>2,2</b>	<b>2,2</b>	<b>2,3</b>
Azken kontsumoa	2,4	2,4	2,5	2,1	2,1	2,1	2,0	2,1
Kontsumo pribatua	2,4	2,4	2,6	2,2	2,2	2,1	2,0	2,1
Kontsumo publikoa	2,0	2,1	2,2	1,8	1,7	1,9	1,8	1,8
Kapital eraketa gordina	3,9	3,6	4,0	3,3	2,9	2,9	2,7	3,0
Barne eskariaren ekarpena	2,8	2,8	2,9	2,5	2,4	2,3	2,3	2,4
Kanpo saldoaren ekarpena	-0,1	-0,2	-0,1	-0,1	-0,1	-0,1	-0,1	-0,1
Lehen arloa	-4,4	-7,2	-3,4	-6,5	-3,8	-8,2	7,9	-2,7
Industria eta energia	3,0	2,7	3,1	2,6	2,4	2,2	2,0	2,3
Eraikuntza	2,5	2,1	2,9	2,1	1,9	1,8	1,5	1,8
Zerbitzuak	2,8	2,8	2,8	2,6	2,5	2,5	2,3	2,4
Balio erantsi gordina	2,8	2,6	2,9	2,5	2,3	2,3	2,2	2,3
Ekoizkinen gaineko zergak	2,5	2,4	2,7	2,2	2,2	2,0	2,0	2,1
BPGaren deflatoarea	1,2	1,2	1,1	1,2	1,4	1,4	1,6	1,4
Enplegua	2,0	1,8	2,0	1,6	1,4	1,4	1,2	1,4
Langabezia tasa	10,6	10,2	10,6	10,1	10,1	9,8	9,8	10,0

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

Ekoizpen sektoreak aztertuta, jarduera adar guztiek, lehen arloak izan ezik, balio erantsi gordinari ekarpen positiboak egingo dizkiotela aurreikusten da. Taula makroekonomiko berriaren arabera, nekazaritza eta arrantzako adarrak narriadura ezagutuko du kontuan hartu diren bi urteetan. Gainontzeko sektoreei dagokienez, eraikuntzarako gehikuntza tasa esanguratsuak aurreikusten dira, bizitasun indartsuko seinale garbiak emanez. Beste aldetik, industriak eta zerbitzuek ere hazkunde tasa garrantzitsuak lortuko dituzte beren balio erantsi




gordinean. Industriak moteltzeko joera erakutsiko du Europan, oro har, eta Alemanian zein Frantzian, batez ere, jarduerak biziko duen apaltzearen ondorioz.


Lan merkatuari dagokionez, Eusko Jaurlaritzako aurreikuspen berriek zehazten dute enplegua %2,0 haziko dela 2018an eta aldakuntza tasa %1,4 izango dela 2019an. Tasa horiek esan nahi dute aurten 19.000 enplegu inguru sortuko direla eta 13.500 inguru, berriz, datorren urtean. Beste aldetik, langabezia tasa %10,6an kokatuko dela 2018an kalkulatu da eta %10,0ra iritsiko dela 2019ko batez bestekoan. Hori horrela bada, 2019ko bigarren seihilekoan langabezia tasaren erregistro batzuk %10,0aren azpian egongo dira.

### 2018ko eta 2019ko aurreikuspenak Urte arteko aldakuntza tasak

Aurreikuspen panela 2018



Aurreikuspen panela 2019



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza, CEPREDE (2018ko uztaila), BBVA (2018ko maiatza), Confebask (2017ko abendua), Laboral kutxa (2018ko uztaila), Funcas (2018ko maiatza) eta Hispalink (2018ko maiatza BEGren aldakuntza).